

Arabako Lautadako Kartografia soziala



Setem

 **SUSTRAIAK**
HABITAT DESIGN

araba  álava
foru aldundia diputación foral

Aurrekariak

Proposamen hau **Eskutik Mundura** partaidetza prozesuaren emaitza da; hots, Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak — zehazki, Lankidetzaren arloak— 2017., 2018. eta 2019. urteetan sustaturiko prozesuaren emaitza. Bestalde, Eskutik. Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Lankidetzaren Politiken Esparru Agiria dokumentuan jasotako esparru teorikoaren gauzatzea dakar. Urte hauetan, Zuzendaritzako politikari eta teknikariek nahiz gizarte eragileek —batez ere GGKEek— lankidetzako eta elkartasuneko politika publiko berrituaren eraikuntzan eragin dute, modu berritzaile, parte hartzaile eta irekian. Halaxe, eraldaketa lokal-globalean eta Arabako lurraldeko elkartasunean sakontzen laguntzen duen baterako lan espazio bat sendotu da.

Eskutik Mundura partaidetza prozesuan, agerian geratzen da tresna berriak sortu behar direla lankidetzaren tradizionala gainditzeko, **(H)ABIAN 2030** gizarte eraldaketarako hezkuntzaren Euskadiko estrategian jasotzen denarekin bat etorritz, estrategia horren parte baita Arabako Foru Aldundia. Hartara, askotariko eragileak batzea eta Iparra/Hegoa dikotomia eta lankidetzaren/hezkuntzaren binomioa gainditzeko dira Eskutik Mundura ekimenean lantzen diren eta proposamen honek berretzen hartzeko dituen erronketako batzuk. Horretarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018-2021 aldirako Gida Planaren (2024 arte luzatua) lehentasuneko arloetako bat aukeratu da jardueraren eremutzat; zehazki, ekonomiaren eta kontsumo jasangarriaren ereduak.

2021eko martxoan, Tresna Eraldatzaile Berriari buruzko lan mahai bat jarri zen abian. Mahai horretan parte hartzen dute bai Arabako Foru Aldundiak, bai nazioarteko lankidetzarekin eta eraldaketa sozialerako hezkuntzarekin, agroekologiarekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin, kulturartekotasunarekin eta babeslekuarekin eta migrazioekin lotutako Arabako hainbat erakundek. Helburua da esperientzia berritzaileak bultzatzea, munduko Iparraren eta Hegoaren arteko mailako desberdinkeria eta bidegabekeriak **eraldatuko** dituzten **prototipoak** eratzearen, **ikaskuntzak** ateratzearen, eta elkarrekiko lankidetzaren **praktiketan** aurrera egiteko.

Horretarako, lan mahaiak erabaki du dokumentu honetan jasotako esperientzia sustatzea. Prozesua aurrera eramateko aukeratutako erakundeak hauek dira: **Sustraiak Habitat Design** eta **SETEM Hego Haizea**, Araban; eta **Penca de Sábila**, Medellinen (Kolonbia). Izan ere, ezagutzak eta esperientzia dituzte agroekologiaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arloan, eta urte askoan aritu dira lankidetzan.



Justifikazioa

Proposamen hau **Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) 2030 Agendaren** nazioarteko konpromisoak sustatzeari dagokionez Arabako Foru Aldundiak bere gain hartutako akordioen barruan dator. Helburu horietarako, izan ere, erreferente dira nazioarteko lankidetzaren sektorea eta gizarte eraldaketarako hezkuntza. Era berean, Eusko Jaurlaritzak bezala, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du **Garapenerako Politiken Koherentziarako erreferentzia esparrua**, politika publikoei buruz hausnartzean eta politika horiek taxutzean kontuan har dadin, erakundearen barruan eta beste erakunde publiko batzuekin batera. Gainera, Arabako Foru Aldundiaren elkartasun eta lankidetzaren politiken esparru estrategikoak politiken koherentzian aurrera egitearen alde egiten du, kudeaketa publikoaren kalitatea, koordinazioa eta gardentasuna hobetzeko prozesutzat.

Hala, bada, politika koherentziarekin bat datozen proposamen berritzaileak sortzeko beharretik —Eskutik Mundura eta (H)ABIAN 2030 ekimenetan identifikatutako beharretik— abiatuta, Arabako Foru Aldundiaren Lankidetzaren arloak **Tresna Eraldatzaile Berria (TEB)** bultzatzea erabaki du. Tresna horrek eragileen eta lurraldeen arteko lankidetzaren praktika tradizionalak gaituko dituen eta Araban eta beste leku batzuetan ezartzen diren beste prozesu batzuetara eraman daitezkeen ikaskuntzak sortuko dituen esperientzia bat gara zea proposatzen du. Hortik sortu da esperientzia hau, ezaugarri hauek dituen:

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018-2021 aldirako IV. Gida Planean (2024 arte luzatua) jasotako eredu ekonomikoaren eta kontsumo jasangarriaren eremu estrategikoa lehenestea.
- Ikuspegi lokal/globala eta ikuspegi politiko-pedagogikoak txerta daitezzen sustatzea eta bultzatzea.
- Askotariko eragile sozial eta instituzionalek parte hartzen duten epe ertain eta luzeko prozesuetan laguntzea; edo burokraziak sinplifikatzeko konpromisoa hartzea.

Esperientzia honen funtsezko alderdi bat **ikuspegi lokal/globala** da. Kontua ez da soilik herrialde pobretuetan proiektuak gauzatzea, baizik eta desberdinkeria egoerei eta bidegabekeria egoerei heltzea, tokian-tokian eragiten duten problematika globalak lotuz eta hobetzeko urratsak emanez, bai Medellinen (Kolonbia), bai Araban, bi tokietako eragileekin, **batera sortzeko eta elkarrengandik ikasteko harremanean**. Lurraldearen degradazioa, planetaren mugak, klima aldaketa eta lurzoru emankorren eta naturaren kontserbazioaren beharra problematika globalak dira, eta Medellinen eta Araban tokian tokikotik erantzuten zaie, agroekologiaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren bidez, ekoizpenetik, kontsumotik eta banaketatik, nahiz eta aldeak badauden, testuinguru desberdinek eraginda.

Beraz, esperientzia honetan **ekonomia sozial eta solidarioaren** esparruko **ekoizpen agroekologikoa** hautatu da gai nagusitzat, eraikuntza kolektiboko eta ikaskuntzako espazioen bidez eragileen, baliabideen, interesen eta premien errealitatea ezagutu ahal izatearren; hausnartzearen; ezagutzak, metodologiak, teknikak, tresnak eta ikaskuntzak partekatu eta trukatzearren; eta lurraldea eraldatzen laguntzearen.

Gai horrek, gainera, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren jarraibideei erantzuten die. Zehazki, hautatutako gaiak NBERen 2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburu (GJH) hauei erantzuten die:

- 1. GJH: Pobrezia modu guztiak desagerraraztea.
- 2. GJH: Gosea amaitzea, elikagaien segurtasuna eta nutrizioaren hobekuntza lortzea, eta nekazaritza jasangarria sustatzea.
- 3. GJH: Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.
- 5. GJH: Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.
- 8. GJH: Guztiontzako hazkunde ekonomiko inklusiboa eta jasangarria, enplegua eta lan duina sustatzea.
- 10. GJH: Herrialdeetako eta herrialdeen arteko desberdinkeria murriztea.
- 12. GJH: Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak bermatzea.
- 13. GJH: Klima aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea.
- ODS 15: Basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea eta lurren degradazioa alderantzikatzea, biodibertsitatearen galera gelditzea.

Bestalde, Europar Batasunak, **2030eko Biodibertsitatearen Europako Estrategiaren** eta «**baserritik mahaira**» strategiaren bidez, klima aldaketa geldiarazteko tresnak eratu nahi ditu, eta oinarrizko produktuen autohornikuntza maila handitzea planteatzen du. Europako estrategia horiek mantenu gaien, pestiziden eta antibiotikoen erabilera murriztea dakarte. Horrek guztiak gaur egun lurraldean nagusi den elikadura sistema (oso modernizatua eta teknifikatua da, eta ura, lurzorua nahiz biodibertsitatea galtzea eragiten du, bai eta kutsadura globala ere) sakon eraldatzea eskatzen du, eskakizun berrietara egokitzeko. Era berean, bizitzarako funtsezkoak diren jarduerak birlokalizatzea ezinbesteko zeregina da, eta ahalik eta lasterren gauzatu behar da, «baserritik mahaira» strategiak eta klima aldaketa geldiarazi nahi duten legediek jasotzen dutenez. Erronka horretan, funtsezkoa da lurraldearen kudeaketa agroekologikoa egitea, bai eta lurraldearen barruan enplegua sortzeko gaitasuna handitzea ere.

Azaldutako guztiagatik, proiektu honetan egindako lanaren helburua da Araban eta Medellinen **ekonomia sozial eta solidariotik** autosufizientzia konektatuaren ereduak bermatzeko egindako ahaleginak balioestea. Era berean, bi lurraldeen artean **ikaskuntzak sortzea eta trukitzea** bultzatu nahi da, lankidetzaren ideia klasikoa hautsita. Izan ere, Medellinen Araban baino une aurreratuagoan daude, eta horrek elkarrizketa horizontalagoa errazten du.

ARABA. Agroekologiaren bidez lurraldea eraldatuz

Klima aldaketak erakusten digunez, giza jarduerak biosferan eragiten dituen inpaktuak gero eta nabarmenagoak dira, eta ekosistementzat mehatxu oso larria dira, planetako bizi guztia haren mende baitago eta haren parte baita. Planetako baliabideak mugatuak direla onartzeak berekin dakar egungo garapen eredia baztertzea, ez baitu mugarik jartzen baliabide horien ustiapenean.

Arabaren kasu zehatzean, Eusko Jaurlaritzaren «Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko LPPa berrikusteko aurretiazko azterlanak eta diagnostikoa, biorregio gisa hartzen den testuinguruan» txostenean adierazten da klima aldaketak lurralde honetan eragin nabarmena izango duela tenperaturaren igoeraren, prezipitazioen murrizketaren eta lehorte nahiz uholdeen ugaritzearen aldetik. Hala eta guztiz ere, txostenak ondorioztatzen du Arabak betetzen dituela baldintzak alor horretako berrikuntzaren buru izateko, eta garapen jasangarriaren eta klima aldaketaren erronkei aurre egiteko eredia birmoldatzeko lanetan lehen lerroan izateko. Nekazaritzako erabilera eredia aldatuz gero, karbono hustubide handi bat gaitu ahal izango da Erdialdeko Arabako eremu laboratuan.

Gaur egun lurraldean nagusi den nekazaritza ekoizpen konbentzionalaren ereduak (oso modernizatua eta teknifikatua) ura, lurzorua eta biodibertsitatea galtzea eragiten du, bai eta kutsadura globala ere, IPCCren gomendioekin eta Europako «baseritik mahaira» eta Biodibertsitatea 2030 estrategiekin kontraesanean, estrategia horiek klima aldaketa geldiarazteko tresnak eratu nahi baitituzte. Gainera, kontuan hartu behar da bizi ditugun klima baldintzak zuzenean eragiten ari direla uztetan; eta, ondorioz, 2022an uzta horiek (zereala, ekilorea, patatak...) nabarmen murriztu direla, kasu batzuetan % 40rainoko murrizketekin.

Erronka ez da gizartearen eta ingurumenaren beharrak garapen ekonomikoaren egungo ereduaren barruan sartzea, baizik eta eredu hori aldatzea, ekosistemen eta Lurreko bizitzaren babesa bermatzearren. Gaur egungo testuinguruan, garrantzitsua da identifikatzea zein diren aurrez aurre jarri beharreko erronketako batzuk, eta zein gako hartu behar diren kontuan gure errealitatearen irakurketa ona egin ahal izateko. Izan ere, aurre egin behar diegun erronka ugariei behar bezala erantzungo dieten estrategiak eratzeko aukera emango digu.

Alde batetik, mende bat baino gutxiagoan, batez ere landakoa zen gizarte batetik hiri eta industria gizarte batera igaro gara. **Lurraldearen ingurumen degradazioko** prozesuak eta landaren eta hiriaren arteko harremanen narriatzeak eraginda, deskonexio bat gertatu da landa eremuaren eta hiri eremuaren artean, eta leku askok lurralde nortasuna galdu dute. Gaur egungo lurralde antolamenduaren ereduak lehenetsua ematen dio onurak epe laburrera lortzeari, lurraldean bizi diren pertsonen biodibertsitatea, ura, lurzorua edo bizitzak mantentzeko edo hobetzeko edozein planteamenduren gainetik.

Beste alde batetik, erregai fosilekiko mendekotasunagatik krisian dagoen esportazioa bultzatzen duen merkataritza eskemaren aurrean, merkataritza eredu alternatiboak garatzen ari dira, tokiko baliabideenganako konfiantzan eta baliabide horiek balioestean oinarritutako tokian tokiko ahaleginetatik sortuak. Garatzen ari diren estrategietako batzuk gizarte berrikuntzaren adibide dira; bitartekarien kopurua murriztea ahalbidetzen dute, eta jendeari eskura jartzea kalitatezko produktu freskoak, kontsumitzaileentzako arrazoizko prezioetan, ekoizle txikien diru sarrerak

arriskuan jarri gabe. Modu berri horiek direla eta, nekazariak eta kontsumitzaileak balio sozialak eta kulturalak birdefinitzen ari dira. Izan ere, iruditeria berri bat zabaltzen dute, eta lurraldean eraldaketak eragin ditzakete, bai eta irizpide agroekologikoekin edo antzekoekin lan egitera bideratutako ekoizpen ekimenak babesten dituzten politika publikoetan eragin ere.

Era berean, **kontsumo joera berriak** sortzen ari dira: produktu osasuntsu eta naturalak bilatzen dituzte, lurralde bati lotutako nortasuna duten produktuak, landa eremuetako ekoizleei merkatu aukera berriak irekitzen dizkietenak. Agroekologia lurralde berrantolaketaren prozesuan integratzea tresna baliagarri bat da, ekintza kolektiboaren, landa ezagutzak balioestearen eta kontsumo joera berrien bidez landa errealitateak eraldatzeko.

Erronka handiak ditugu, hala nola klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, mundua elikatzeko elikagai nahikoak eta kalitatezkoak ekoiztea (alferrik galdu beharrean), edo landaren eta hiriarren arteko harremanak. Aurrekaririk gabeko egoera bati aurre egiteko estrategiak behar ditugu. Horiek horrela, agroekologiak herritar guztiei aukerak eskaintzen dizkie elikadura ekologikoa, jasangarria eta osasungarria bermatzeko, planetaren jasangarritasuna bermatuz eta klima aldaketaren aurkako borroka bere indarguneetako bat izanik, bai klima aldaketa arintzeari dagokionez, bai klima aldaketara egokitzeari dagokionez. Besteak beste arrazoi horiengatik, **agroekologia** trantsizio proposamentzat hartzen da, jasangarria, osasuntsua eta justua izango diren nekazaritzako eredu eta nekazaritzako elikagaien sistema baterantz igarotzeko, klima aldaketari eta XXI. mendeko beste erronka batzuei aurre egiteko beharrezko bidetzat.

Agroekologiaren helburua ez da soilik nekazaritza sistemak aztertzea eta lan-tzea; aitzitik, gaur egun, agroekologiako estrategiak faktore sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak barne hartzen ditu, agroekosistemak aztertzean. Horrek analisiaren dimentsioa zabaltzen du, eta beharrezkoa da beste kontzeptu bat, **trantsizio agroekologikoa**. Izan ere, benetan jasangarritasuna lortu nahi badugu, baliabide naturalak antolatu eta kudeatzeko lanetan sartu behar dira elikagaien ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren kate maila guztiak: ekoizleak, herritarrak, erakunde zibilak eta politikoak.

Horrenbestez, premiazkoa da estrategia berri bat eraikitzea, epe luzerako ekintza iraunkor bat eta **lurraldearen plangintza integral** bat, elkarrekiko mendekotasunean eta osagarritasunean oinarritua, landa ingurunearen izaera konplexu eta multifuntzionala kontuan hartuko duena. Egungo ereduaren alternatiba errealak eraiki behar ditugu, planetaren mugen barruan bizitzeko eta ematen dizkigun onurak eta zerbitzuak modu bidezkoagoan banatzeko. Ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegiak zeregin horretan lagun diezaguke, ekonomiaren, pertsonen eta planetaren arteko balantze justu eta jasangarria bilatzen baitu.

Aztarna ekologikoa eta bioeskualde baten biogaitasuna orekatu nahi dira, giza jardueren eta lurraldeen arteko oreka bilatuz, gure ingurunea zainduz eta dinamizatuz, bioeskualde jakin bateko baliabide erabilgarrietara egokitutako jarduera ekonomikoen bidez. Horretarako, funtsezkoa da modu jasangarrian kudeatzea baliabide estrategikoak —hala nola ura, lurzoru emankorra, biomasa, biodibertsitatea eta paisaia—, baliabide horiek zaintzea eta indartzea sustatuz.

Logika horretan bat egin behar dugu **lurraldera konektatuta doan agroekologiarekin**, lurraldean eta lurraldearen nortasunean errotuta dagoen ekoizpen baten bidez, eta agroekosistemen manei jasangarri eta justua eginez. Garrantzitsua da lurraldea ulertzea paisaia, klima, fauna nahiz flora eta bertan bizi diren pertsonak

bere baitan hartzen dituen ekosistematzat. Ez da espazio fisiko, kultural edo sozial baten deskribapen hutsa, baizik eta lurraldea bera tresna bihurtzen da, eratzen eta konektatzen duen tresna.

Lurraldea agroekologiaren bidez eraldatzeko, Elikadura Sistema Lurralteratuetarantz jo behar da, sistema horiek nekazaritzako elikagaien kate maila guztiak pixkanaka birkoka daitezen eta nekazaritzako ekoizpen prozesuen trantsizio agroekologikoa bultzatzen. Hau da, ekoizpen, banaketa eta kontsumo kateari heldu behar zaio, pertsonen ongizatea erdigunean jarriko duen ikuspegi integral batetik.

Imajinario kolektiboan, *agroekologia* hitza aipatzen denean, eskala txikiko familia nekazaritza datorkigu burura. *Familia nekazaritza agroekologikoa* deitu izan zaio horri, eta garrantzi handia du biziraupenaren eta tokian tokiko elikagai segurtasunaren oinarritzat. Hala ere, eta hain beharrezkoa den familia nekazaritza agroekologikoa alde batera utzi gabe, uste dugu urrats bat harago egiten saia gintezkeela, agroekologiak ekoizteko eta antolatzeke duen potentziala kontuan hartuta, eta eragin handiagoa izan genezakeela printzipio agroekologikoak eskala handiagoko logika batetik aplikatuz.

Agroekologiari buruzko begirada zabaldu nahi dugu. Begirada zabal batekin, agroekologiak tokiko nekazaritzako elikagaien ereduak diseinatzeko estrategia bat izan nahi du, sistema jasangarriago, bidezkoago eta osasungarriago baterantz doazenak, eta sistema horren printzipioak jasangarritasunaren lau dimentsioen inguruan bana genitzake: ingurumena; gizarte eta kultura; ekonomia; eta politika. Gure ustez, modu egokia da agroekologiaren konplexutasuna eta alderdi multidimentsionala hautemateko. Eta aukera ematen digu agroekosistemak eta elikadura sistemak ulertzeko, haien oinarri diren testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoak kontuan hartuta.

Proposamen hau galdera batzuei erantzun nahi izatetik sortzen da. Adibidez, galdera honi: hitz egin al dezakegu agroekologiaz, ohituta gaudena baino eskala handiagoan? Hitz egin daiteke agroekologiaz eta lurraldeaz? Gure ustez, gaur egun, lurralde batzuetan abiapuntu ona dago, eta Arabako Lautadako kuadrilla adibide ona da, Landa Garapenerako Elkartearen (LGE), tokiko beste erakunde batzuen eta herritarren lan onarekin. Gure iritzira, dagoeneko martxan dauden ekimenak konektatzeko gai baldin bagara eta ikuspegi orokorra eman badiezaiekegu, apustu erresilienteagoa egingo dugu etorkizunari begira gure lurraldeentzat.

Beraz, **dokumentu hau hurbilketa bat baino ez da, kartografia sozial bat**, lurralde jakin batekin —hau da, Arabako Lautadako kuadrillarekin— bideratutako lehen harreman bat, oraintxe zer egiten den behatu nahi duena, eta, era berean, ezezagunez (krisi anitzez) beteriko etorkizunari aurre egiteko abian dauden ekimenen artean aliantza aukerak zein diren balioetsi nahi duena, bai eta pitzadurak ireki ere, lurraldean garatzen ari diren estrategiei balioa emango dien etorkizun positibo eta erresiliente bat ikusi ahal izateko.



Lan hau hasteko **Arabako Lautada aukeratu izana** ez da kasualitatea. Esperientzia eta praktika agroekologikoei dagokienez hutsetik abiatuko ez zen lurralde bat nahi genuen; orobat, trantsizio agroekologikoaren ikuspegia egingarria dela erakusteko aukera emango zigun ekimen kopuru esanguratsu bat abian zuen lurralde bat nahi genuen. Lautada aukeratzeko beste arrazoi bat izan zen, lurraldean eragin esanguratsua eta eraldatzailea lortzeko, funtsezkoa dela horrelako jardunbideekin lerrokatuta dauden ekimen publikoen laguntza eta bultzada izatea (eta halakoxeak dira Lautadako LGE bultzatzen ari den ekimenak).

Horrenbestez, hori da proiektu honen ideia nagusietako bat: **lurraldean edo bioeskualde batean aplikatutako trantsizio agroekologikoko estrategia bat nola garatu**¹ litekeen aztertzea. Gaur egungo testuinguruan, aurre egin beharreko erronkek banaka erantzuteko dugun gaitasuna gainditzen dute. Beraz, denon arteko estrategiak behar dira aurrera egiteko. Horretarako, lehenengo urratsa da lurralde jakin batean zer baliabide eta aktibo dauden kartografiatzea. Lehen hurbilketa hori egiteko, Arabako Lautadako kuadrilla hartu dugu azterketa eremutzat, eta gure asmoa da lurralde horretako kartografia sozial hori oinarri izatea etorkizunean beharrezkoak diren estrategiak eraikitzeke ditugun baliabideak identifikatzeko.

Azterketa lan hori adibide bat izan daiteke, lurraldearen trantsizio agroekologikorako bidean nondik hasi. Lan hori hurbileko bioeskualde edo koadriletan errepika liteke, horien errealitatera egokituta, trantsizio agroekologikoak Arabako lurralde osora zabaltzen jarrai dezaten. Hartara, estrategia bateratuak garatu daitezke tokiko eragile dinamizatzaileen arteko lankidetzaren bidez, esperientzien eta jardunbide egokien trukea bultzatuz, eta, horrela, lurralde osoko trantsizio agroekologikoan aurrera eginez.

1. Bioeskualdea: ezaugarri natural, geografiko eta historiko komunak dituen eta haren identitate balioak indartzen dituen eremu bat osatzen duen arro hidrografiko batek zehaztutako lurraldea.

ASMOEN ADIERAZPENA

Zer aurkituko dugun eta zer ez dugun aurkituko dokumentu honetan

► Lan honen helburua ez da zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki aztertzea. Lehen begiratu bat besterik ez da, lurraldean abian dauden jardueren eta proiektuen bilduma, «gaia zertan den» adierazten duen azterlana. Helburua da jardueren bilduma hori (zeina hasiera batean ez baitzen planteatu, kontzienteki, elkarri lotutako ekimenen multzotzat) baterako begirada batekin irakurri ahal izatea, eta Arabako Lautadako kuadrillaren lurraldeak duen eraldatze potentzialtasuna ikusarazteko oinarria izatea, baldin dagoeneko abian dauden ekimen horiek lanean jarraitzen badute, bere ekimenei —eta, beraz, bere lurraldeari— modu kolektiboan eraldaketa eta onurak ekartzen dizkion estrategia handiago baten parte aktibo izan daitezkeela jakinda. Hori guztia, aintzat harturik estrategia komun baten parte izateak administrazioen aurrean negoziatzeko gaitasun, ikusgarritasun eta agentzia gaitasun handiagoa ematen duela, bai eta legitimitate sozial handiagoa ere.

Hartara, lan honek balio baldin badu lehendik egiten den lan on guztia ikusaraz dadin, eta ekimenen protagonistek jakin dezaten ekimenak lotuko dituen lan bide bat ireki litekeela (bakoitzak bere lana egiten jarraitzen du, baina estrategia «supra» bat dago, bioeskualde horren etorkizunari erresilientzia ematen dion estrategia kolektibo baten parte dena), lan honen helburua sobera lortua litzateke.

► Lan honek balizko estrategia kolektibo posibleetako bat esploratzen du, eta aski argudio eta oinarri sendoak daudela ikusarazi nahi du, interesa izanez gero horretan lanean eta sakontzen jarraitu ahal izateko, ekimenen bultzatzaileek gidatuta.

► Zer balio dakar dokumentu honek? Agroekologiari lurraldearen begirada aplikatzea. Kontua da lurraldeari agroekologiatik begiratzea, aliantzak eta lurralde erresiliente bat sortzearen. Agroekologiaz hitz egiten dugunean, bioeskualdeen ikuspegitik egiten dugu. **Bioeskualdeko kudeaketa agroekologikoak** —hau da, lurraldea planifikatzeko eta kudeatzeko moduak— inplikaturako eragile bakoitzaren interesak eta beharrak jasoko ditu, ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetatik abiatuta. Eta une eta leku bakoitzeko beharretara egokitzeko gai izango da, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten berezko aldaketa eta egoeretara egokitzeko aukera emango dion modu malguan.

ZER AURKITUKO DUGU DOKUMENTU HONETAN

Azaldutako edukien gida laburra, eta lan metodologia

Dokumentu honetan Arabako Lautadako kuadrillan egin dugun kartografia sozialaren elementu garrantzitsuenak bildu eta nabarmendu dira. Asmoa da geureganatu dezagula ikuspegi orokor bat, ikuspuntu agroekologiko bat lurraldean nola aplikatu litekeen, dagoeneko abian dauden ekimenetatik abiatuta.

Dokumentu honetan jasotzen den kartografia soziala aztertzeko oinarritzat, AgroecologiCAM¹ taldeak bultzatutako metodologia bat erabili dugu. Metodologia horren izenburua da «**Nola jarri abian trantsizio agroekologikoa**»; nekazaritzako elikagaien kate mailak identifikatzen ditu, eta horiek erreferentziatzat hartzea proposatzen du. Horrela, lurralde eskalan trantsizio agroekologikoa aplikatzeko proposatzen den lan metodologia zazpi elementuko eskema baten bidez gauzatzen da. Elementu horiek nekazaritzako elikagaien sistema batean kontuan hartu beharko liratekeen kate mailak identifikatzen dituzte. Dokumentuan zehar, elementu horietan aurkitu ditugun ekimenak kokatuko ditugu, egindako lan guztia antolatu eta ikusaraztearren, eta lantzen jarraitu beharko liratekeen alderdiak zein diren eta aurreratuenak zein diren identifikatzearren.

Hona hemen elementuak:

- 1. LURZORUA PRESTATZEN** Esparrua eta baldintza lagungarriak.
- 2. AGROEKOLOGIA EREITEN.** Ekoizpena.
- 3. UZTA ERALDATZEN.** Eraldaketa.
- 4. LURRALDEA POLINIZATZEN.** Banaketa.
- 5. AGROEKOLOGIA ETXEETARA HURBILTZEN.** Merkaturatzea.
- 6. AGROEKOLOGIA KONTSUMITZEN.** Kontsumoa
- 7. LURRERA BUELTAN.** Birziklapena/intsumoak.

Lanerako proposamen metodologiko honi zortzigarren elementu bat gehitu diogu: ekonomia sozial eta solidarioa.

8. AGROEKOLOGIATIK ERALDAKETA EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATZEN. Ekonomia sozial eta solidarioa.

Ekonomia sozial eta solidarioaren esparruari esker, proposamenean baliu unibertsalak sar ditzakegu, hala nola ekitatea, justizia, senidetasun ekonomikoa, gizarte elkartasuna eta zuzeneko demokrazia. Ekoizteko, kontsumitzeko eta banatzeko modu berri bat proposatzen da aukera bideragarri eta jasangarri gisa, banakako beharrak eta behar globalak asetzeko. Horretarako, ekonomia sozial eta solidarioa erabiliko da oinarritzat, inguruneko elikagai osasungarri, lokal eta jasangarrien ekoizpena handituko duten izaera endogenoko lanpostuak sortzea ahalbidetuko baitu.

2. AgroecologiCAM proiektuak abiapuntutzat hartzen du agroekologia benetako berrikuntza aukera bat dela landa garapen iraunkorraren mesedetan, eta hainbat ekintzaren bidez bilatzen ari da hurbiltasuneko nekazaritza eta abeltzaintzako eredutzat ezagutzea eta aitortzea, bai eta Madrilgo Erkidegoan tokiko elikadura eta nekazaritza sistema jasangarriak diseinatzeko estrategiatzat ere. «AgroecologiCAM <https://agroecologicam.org/>»

ekonomia sozial eta solidarioa



Irudia Agroecologicam ekimenak sortutako irudiaren moldaketa da. Proiektu horrek identifikatutako zazpi elementuei zortzigarren bat gehitu diogu, Ekonomia Sozial eta Solidarioa.

Arabako Lautadako kuadrilla, Araba

Agroekologiarako trantsizioko metodologia horretan oinarrituta, 2022an elkarrizketa egin dugu Arabako Lautadako kuadrillako zenbait eragilerekin, eta kuadrilla horretako esperientzia zehatzei buruzko informazioa bildu dugu. Identifikatu nahi dugu zein den lurralde horren abiapuntua, martxan dauden praktika eta proiektuei dagokienez, funtsezkoak baitira trantsizio agroekologikoa abiarazteko.

Lurralde horretan dagoeneko egin duten lan handiak eragin du kuadrilla hori aukeratzea. Asko dira, era batera edo bestera, kuadrillan egiten diren ekimenak, nekazaritza ekologikoa terminoaren barruan sar genezakeen ikuspegi batetik garatuak. Ekimen horiek eremu pribatutik zein instituzionaletik bultzatzen dira. Eredu egokia iruditzen zitzaigun, Landa Garapenerako Elkarte aurrera eramaten ari den ikuspegi eta bultzadarengatik.

Jarraian aurkeztuko ditugu Lautadan dauden zenbait praktika, trantsizio agroekologikoaren parte izan daitezkeenak. Trantsizio agroekologiko baterako beharrezko elementu edo urratsak dira. Gure helburua da esperientzia horiek balioestea, Lautadan egindako lanaren eta trantsizio agroekologiko horretan egin litekeen lanaren ideia orokorra lortzeko erreferentzia izan daitezen.

Hala, bada, Arabako Lautadako kuadrillan ditugun esperientziak jaso ditugu. Esperientzia horiek bildu ditugu eskualdeko funtsezko eragileekin egindako elkarrizketen bidez, hala nola LGEko teknikariek, Aguraingo eta Burguko merkataritza teknikariek eta ingurumen teknikariek egindako elkarrizketen bidez, eta eragile horiek emandako dokumentuen azterketaren bidez. AgroecologiCAM taldearen metodologiak trantsizio agroekologikorako proposatzen dituen elementuetan kokatu ditugu jasotako praktikak eta esperientziak. Ariketa honen helburua da kuadrillan agroekologiaren inguruan egindako lana balioestea, horren guztiaren mapa egitea, eta egiteko zer bide dauden identifikatzea.





Kartografia Sozjala

1.



LURZORUA PRESTATZEN
Esparrua eta
baldintza lagungarriak

Lehen elementu hau proiektu agroekologikoak eta lurraldearen trantsizio agroekologikoa sustatzeko esparru egokiak garatzean datza. Horretarako, funtsezkoa da gobernantza sendo bat, non bai administrazio publikoek bai lurraldeko erakundeek eta eragileek zeregin garrantzitsua izango duten.

Trantsizio agroekologikoa errazten duten nekazaritza politikez gain (adibidez, nekazaritza lurra babestea, hurbileko herrietan eman daitezkeen elikagaien ekoizpena bermatzearen eta lurzoru emankorra galtzea eragoztearren), erakunde publikoek diagnostiko eta plan estrategikoak egin ditzakete modu parte-hartzailean, eragile ekonomikoak, dendari elkarteak, kontsumo elkarteak, sektore akademikoa eta abar sartuta. Logika horretan bertan, oso komenigarria da eragile horiekin guztiekin parte hartzeko gune formalak aldeztzea, nekazaritzako elikagaien politikak lantzearen.

Estrategia eta politika publikoak trantsizio agroekologikora bideratzeko, beharrezkoa da ekimen agroekologikoen tokian tokiko dinamizazioa indartzea, teknikariak eta politikariak prestatuta eta sareetan parte hartzea erraztuta. Bestalde, garrantzitsua da kontsumoan eta ekoizpenean asoziazionismoa sustatzea eta indartzea.

Azkenik, sektore akademikoarekiko lankidetzak baliagarria izan daiteke, estrategia eta politika horien garapenera oinarri sendoa ematearren.

Lautadako kuadrillan badira edo egon dira zenbait ekimen, esparru lagungarriak sustatzen dituztenak:

1. Parte hartzeko eta koordinatzeko guneak:

- Egoki 2, Burgun (2019): klima aldaketara egokitzearren, herritarrek parte hartzeko prozesua. Prozesu horretan hainbat gai jorratu ziren, besteak beste: autohornikuntza jasangarria, elikaduraren eremuan; eta nekazaritza sektoreari laguntasuna ematea, ekoizpen eta kontsumo eredu jasangarriagoetarako trantsizioan. Prozesu horretan zenbait saio egin ziren Burguko bizilagunekin, eta beren kezkek eta ideiak azaldu ahal izan zituzten.
- «Lautadaren taupada» landa garapenerako asteak antolatzeke osatutako eskualde kohesiorako taldea: jardunaldiek eskualde kohesioa barne hartzen dute, zentzu zabalean, eta helburutzat dituzte, besteak beste, elikagaien ekoizpenean eta kontsumoan jardunbide egokia sustatzea, kuadrillako produktuak sustatzea, eta barne kontsumoa sustatzea.
- Foroak, udaletxean, ikastetxeetako ikasleekin: 2030 Agendaren eta Ingurugelen esparruan, foroak egiten dira kuadrillako udalerrietako alkateekin, ikasleek ordezkari politikoei helaraz diezazkieten ikasturtean zehar ingurumenari lotutako gaiei buruz landu dituzten proposamenak.
- Udal baratzei buruzko jardunaldia egin zen Burgun, landa garapeneraren asparen barruan. Asparreneko, Burguko eta Dulantziko udalek araudia trukatu zuten, 2019an hiri baratzeak sustatzearen.

2. Bioeskualdeko plan estrategiko bat eta/edo eskualdeko nekazaritzako elikagaien estrategia bat garatzea

- Arabako Lautadako Eskualdeko Landa Garapenerako 2015-2020 Programa: kuadrillako Landa Garapenerako Elkarteak bultzatutako plan horren helburuen artean dago garapen jasangarria, «gure baliabide naturalen erabilera, kudeaketa eta aprobetxamendu onaren bidez» Helburu horrek, gainera, honako helmuga hauek ezartzen ditu: «nekazaritza ekoizpeneko sistema jasangarriak gehitzea», barne harturik ekoizpen ekologikoa bultzatzea eta azpiegiturak nahiz zerbitzuak —hala nola baratze ekologikoak— lagatzea; «hobeto kudeatu eta aprobetxatzea baliabide naturalak: lurra, ura, basoak...»; eta «eskualdeko enpresetan gizarte erantzukizuna sartzeara».

3. Erosketa publiko arduratsua

Erosketa publik berebiziko eragina du merkatuetan, eta, horregatik, ziurtatu behar da erakundeek irizpide sozial, ingurumeneko eta etikoekin egiten dituztela erosketak. Asparrenean, gaiari buruzko jardunaldi bat egin zen teknikarientzat eta politikarientzat, irizpide horien arabera balintza agiriak egin daitezzen, herriko etxebizitza komunitariorako eta adintsuen zentroko sukaldarako.

4. Dinamizazio agroekologikoa

Landa Garapenerako Elkartea da zeregin hori betetzen duten eragile nagusietako bat. Bestek beste, eskualdean gauzatzen diren prozesuetan (agroekologiari lotutakoak barne) parte hartzea bideratzen du.

Gainera, tokiko nekazaritza ekimen ekologikoen dinamizatzaile figura zehatz bat dago, eta kuadrillan adibide zehatz bat dago:

- **Tokiko ekimen agroekologikoen dinamizatzailea:** Burguko ingurumen teknikariak DILA formakuntza (tokiko ekimen agroekologikoen dinamizatzaileentzako formakuntza berezia) egin zuen, Terrae Sareak bultzatua. Herriko Udala sare horren parte da. Lankidetzazko ikaskuntzarako gune bat da, eta parte hartzaileek aholkularitza pertsonalizatua jasotzen dute, langai duten herriaren eta proiektuaren arabera. Formakuntza horretatik sortu zen Burgun Biohazi proiektua.

5. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremanak sustatzea

Merkataritzaz harago doazen ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko loturak sortzen laguntzeak ahal handia du proposamen agroekologikoan konfiantza eraikitze-ko eta merkaturatze zirkuitu laburretan parte hartzen duten kontsumitzaileen kopurua handitzeko. Gainera, enpatia sustatzen du ekoizleen eta kontsumitzaileen artean, eta ekoizleen lana balioesten du. Horretarako jardunbide egoki bat da ekonomatuak sortzea, eta Lautadak tradizio handia du establezimendu horietan.

Gaur egun, mota horretako hainbat ekimen daude:

- Asparreneko Unión Obrera, «La Cope», Estatuko kontsumo kooperatibarik zaharrenetako bat.
- Ozetako ekonomatua.
- Aguraingo ekonomatua.

- Burguko «Denda txiki».
- Mendixurko Patioko Benta: eraikitze prozesuan dagoen proiektu bat da; tokiko produktua saltzen duen taberna jatetxe bat izango litzateke, puntu turistikoaz gain.
- Zalduondon, bolatokia eta atxikitako eraikina birgaitzeko proiektu bat garatzen ari dira, Ignaziotar bideari eta Done Jakue bideari buruzko informazio puntu bat jartzeko. Horrekin batera, tokiko produktuak dituen salmenta gune bat jarriko litzateke.

6. Sareetan parte hartzea

Sareak gune egokiak dira, aliantzak sortzen laguntzen duten ezagutza, esperientzia eta praktika oso interesgarriak sortzeko eta trukatzeko guneak. Gainera, sektorea koordinatzen, premia komunitararako irtenbideak planteatzen eta proiektuak finantzatzen lagun dezakete. Burguko Udala, adibidez, Terrae Sarea, Erreserba Agroekologikoko Lurraldean Udala arteko Elkartea erakundeko kide da. Sare horren helburua da landa paisaia berreskuratzeko, nekazaritza biodibertsitatea kontserbatzeko eta elikadura subiranotasuna bultzatzeko ekintzak sustatzea eta garatzea, agroekologiaren babesean.

7. Sektore akademikoarekiko eta ikerketa zentroekiko lankidetzak

Prozesu agroekologikoak ikertzeak eta akademiarekin nahiz ikerketa zentroekin zubiak ezartzeak laguntza zientifikoa ematen dute erabakiak hobeto hartzeko. Lautadan, lankidetzak esperientzia batzuk izan dira sektore akademikoarekin, hala nola Leartiker ikerketa zentroarekin (polimeroen teknologian eta elikagaien teknologian espezializatutako zentro teknologikoa) egindakoa, gazten serumetik abiatuta edari bat garatzeko. Era berean, gaztak ekoizteko plastikoak erabiltzearen alternatibei buruzko jardunaldi batzuk egin ziren.

Sakontzen jarraitzeko proposamenak

Ikusi dugunez, kuadrillan hainbat ekintza egin dira lurraldea agroekologiatik eraldatzeko beharrezkoak diren baldintzak aldezteko, baina oraindik bide luzea dago egiteke zenbait alderditan:

1. Erosketa publiko arduratsua

- Erosketa publikoa BPGaren ehuneko handi bat da Europar Batasunean (ia % 20ra iristen dela kalkulatzen da), eta, beraz, erosketa eta kontratazio prozesu horietan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta etikoak sartzeak aldaketa handia ekar dezake merkatuan. Erosketa publiko arduratsuari lotutako gaien artean daude, halaber, prozesu eta produktu ekologikoak eta zero kilometroko produktuak kontratatzea. Horrek, ingurumenari laguntzeaz gain, onurak sortzen ditu tokiko garapenean; despopulazioa saihesten du; ekonomia zirkularra bultzatzen du; enplegua sortzen du ingurunean; eta itzulkin fiskala eragiten du, kontratatutako enpresek tokian bertan dutelako egoitza.
- Horretarako, erosketa eta kontratazio publikoko prozesuekin zerikusia duten eragile publiko, sozial eta enpresarialen formakuntza eta gaikuntza ezinbesteko elementua da. Lautadan, gai horri buruzko jardunaldiak antolatu dira, erosketa publikoan irizpide sozialak, ingurumenekoak eta etikoak sartzen adituak diren aholkulariekin.
- Hala ere, ez dugu ziurtasunik, kuadrillako udalerrietan irizpide horiek sartzeko prozedura formalak daudenik, eta erosketa publiko arduratsuak ahalmen eraldatzailea duenez, oso onuragarria izango litzateke gai horretan lan egitea. Horretarako oso tresna praktikoa dira REAS Euskadik erosketa publiko arduratsuari buruz egindako gidak; eta, agroekologiari dagokionez, produktu ekologikoak eta zero kilometroko produktuak erosteari buruzko gida.

2. Parte hartzeko organo formalak

Parte hartzeko gune batzuk daudela identifikatu dugun arren, Lautadan ez dago horretarako organo formalik, non eragile sozialek, ekonomikoek edo sektore akademikokoek erakundeei lagunduko dieten elikagaien segurtasun bidezkoa eta ekologikoa bermatuko duten nekazaritzako elikagaien politikak eraikitzen.

3. Nekazaritza lurra babestea

Lurzoruaren babesa eta erabilera jasangarria funtsezkoak dira, ekosistemak babesteko ez ezik, elikagaien segurtasuna bermatzeko ere. Ildo horretan, gainera, agroekologia tresna bikaina da lurzorua degradazioa lehengoratzeko eta lurzorua osasuna hobetzeko. Horregatik, erakundeek lurzorua babesari buruzko araudiak sustatu beharko lituzkete, agroekologiaren aldeko ekimenekin batera.

4. Ekonomia lankidetzarako lurralde poloak sortzea

Administrazioek azken urteotan bultzatutako lurralde garapeneko ereduari erreparatuz eta orain arte azaldutako guztia kontuan hartuz, beharrezkoa da lehiakortasunean soilik zentratuta ez dauden estrategia berriak birpentsatzea eta eratzea. Eraginkorrak izango diren, lurralde desorekarik sortuko ez duten eta elkartasunean oinarrituta egongo diren eredu berrien aldeko apustua egin behar da. Inoiz baino areago, lurraldea egituratzeko zeharkako tresnak izango diren proposamenak behar ditugu.

Ildo horretan, ezinbestekotzat jotzen dugu Frantziari begiratzea, gai honi buruzko proposamen berritzaileak dakartzatelako. Han, estrategia interesgari bat antolatu dute, «ekonomia lankidetzarako lurralde poloa» deritzona. Horren xedea da proiektu ekonomiko berriak bultzatzea eta identifikatzea, lurraldean dauden eragileekin sinergiak eratzetik eta sortzetik abiatuta.

Eurek emandako definizioaren arabera, ekonomia lankidetzarako lurralde polo bat (*pôle territorial de coopération économique, PTCE*) lurralde batean ainguraturutako eragile talde bat da (tokiko komunitateak, enpresak, ikerketako/gaikuntzako eragileak), zeinaren helburua baita elkarrekin proiektu ekonomiko berritzaileak garatzea, lankidetzako eta taldekatzeko estrategia baten bidez. PTCEaren zeregina da lurraldeak biziberritzea, tokian bertan eragin handia duten eta lanpostuak sortuko dituzten ekonomia sozial eta solidarioko proiektuen garapena sustatuz, pertsonak eta ingurumena errespetatuz.

2.




**EKOIZPEN AGROEKOLOGIKOA
EREITEN
Ekoizpena**

Ekoizpen sistemak hobetu nahi dira, lurraldearen ikuspegia, ekonomia sozial eta solidarioa eta ekofeminismoa sarturik, besteak beste.

Agroekologiara bideratutako politikak eta estrategiak eraikitzeko gune parte-hartzaileak sortzea funtsezkoa da lurraldearen trantsiziorako; baina prozesu horietan parte hartzen duten eragileak ez daude nahitaez agroekologian sentsibilizata eta prestatuta. Horregatik, prozesu horren beste funtsezko elementuetako bat da trantsizio agroekologikorako formakuntza eta aholkularitza. Hor sartuta daude modernizazioan eta profesionalizazioan trebatzea, ingurunea behar bezala kudeatu eta klima aldaketa arintzea, kanal laburretan merkaturatzea, eta helburu agroekologikoa duten proiektu berriei eta lehendik dauden trantsiziorako proiektuei laguntzea. Laguntasun horrek ekoizleen kooperatibak sortzea ere aurreikusi beharko luke. Izan ere, taldean, ekoizleak efizienteagoak eta eraginkorragoak dira, negoziazio ahalmen handiagoa dute, gai dira intsumo gehiago eta hobeak lortzeko eta produktu gehiago eta kalitate handiagokoak merkaturatzeko. Gainera, aukera ematen die ekoizpenaren erregularotasuna eta aniztasuna bermatzeko, baita ekoizteari eta zerbitzuak eskuratzeari lotutako denbora, arriskuak eta kostuak minimizatzen ere.

Beste alde batetik, nekazaritza jarduera garatzeko ezinbestekoa da lurra eskuratu ahal izan dadin bermatzea, eta administrazio publikoek hainbat tresna aplikatu ditzakete horretarako.

Administrazio publikoak agroekologia sustatzeko egin dezakeen beste ekintza bat da erreferente izango diren eta lan kooperatiba berriak sortzera bideratuta dauden azpiegituren garapena erraztea; edo, adibidez, ordainketak egitea nekazaritza, ingurumen eta klima konpromisoengatik, edo laguntza ematea baliabide genetikoaren kontserbazioari, erabilerari eta garapen jasagarriari.



Arabako Lautadako kuadrillan badaude ekoizpen sistemak hobetzera bideratutako esperientzia batzuk:

1. Lurra eskuratzeko tresnak: ortu komunitarioak, lurrak lagatzea

Erakunde publikoek hainbat tresna dituzte eskura, lur produktiboak eskuratzeko, adibidez: lur bankuak, nekazaritza parkeak, edo lurraldearen zaintza edo lurralde kontratua. Eskualdean badira lurra eskuratzeko errazteko esperientzia txikiak ere:

- **Dulantziko aisialdiko baratze ekologikoak:** Dulantziko Udalak baratze ekologikoen programa bat bultzatzen du, helburutzat hartuta ingurumenari buruzko formakuntza eta kontzientziazioa, lurzorua eta uraren erabileren plangintza eta kudeaketa, eta espezie autoktonoen kontserbazioa.
- **Asparreneko baratze ekologikoak:** 20 baratze ekologiko daude, 120 metro koadrokoak, eta Udalak kudeatzen ditu 5 urterako.
- **Burguko Biolortu:** proiektu didaktiko bat da, eta barne hartzen ditu baratze ekologiko bat, oilategi bat, urmael bat eta bi zuhaitz eremu. Proiektuan, inguruko pertsonak eta familiek parte hartzen dute. Baratze mailatan landatzen da, eta Gaspar Caballero de Segovia Sánchez irakaslearen metodoa erabiltzen da.³
- **Burguko Biohazi:** Añuan, ekimen agroekologikoak babesteko proiektu hau sustatu zen, ingurumen teknikariak egindako egindako DILA⁴ formakuntzaren esparruan. Mila metro koadro inguruko bi lursail dira, eta hor daude berotegi bat eta zenbait lantegitan bioeraikuntzaz egindako lanabes etxola bat.

3. Gaspar Caballerok garatutako metodoa, sinpletasunean, logikan, lurra eta uraren erabilera arrazionalan, edozein produktu fitosanitario baztertzean, esfortzua al bait neurri txikienera ekartzean eta emaitzak neurri handienera ekartzean oinarritua.

4. Tokiko Ekimen Agroekologikoen Dinamizatzaileak (DILA): TERRAE sareak bultzatutako formakuntza, zeinaren helburua baita tokian tokiko baldintzak sortzea agroekologiaren aukerak azaleratzearen, tokiko garapenerako eta autoenpleguari laguntzeko tresnatzat, udalerrri adimentsuagoak eta ekoeraginkorrakoak sortzen lagunduta.

Sakontzen jarraitzeko proposamenak

1. Trantsizio agroekologikorako formakuntza eta aholkularitza

Imajinario kolektiboan ezarritako ideia bat da merkaturatze bide laburretako ekoizpen jasangarriko eta agroekologikoko ereduak ekonomikoki bideragarriak ez direla. Formakuntza eta sentsibilizazioa behar dira, gezurrezko uste hori desegiteko eta eredu horietan instalatu nahi diren pertsonen beharrezko tresnak emateko. Gero eta jende gehiago bat egitera animatzearen eta trantsizio agroekologikoak arintzearen, oso lagungarria izango litzateke formakuntza hori erraz eskuratzeko moduan jartzea, bai jada proiektu bat duten eta trantsizioa egin nahi duten edo gai jakin batzuetan formakuntza behar dutenentzat, bai lehen aldiz instalatzen direnentzat.

Administrazio publikoek, bai formakuntza arautuan, bai lanbide heziketan, bai enplegua bilatzera bideratutako formakuntzan, agroekologiako edukiak sar ditzakete; eta aukera dute ekintzailtza agroekologikoko eskolak edo nekazari-tzako test guneak bultzatzeko ere.

Gainera, elkarguneak eta kontsultarako eta trukerako guneak sor daitezke, eztabaida eta jakintzen nahiz praktiken transferentzia bideratzeko. Helburua da agroekologiari lotutako informazioa, esperientziak, tresnak, iritziak, baliabideak eta abar partekatzea, bai aisialdiko nahiz autokontsumorako baratzetean hastek, bai produktuak merkaturatzeko edo zuzenean saltzeko zirkuitu laburretan saldu nahi dituzten ekimenei laguntza edo tutoretza emateko.

Egiten diren formakuntzak ekoizpen sektorearekin batera diseinatu behar dira (ekoizleen elkarteak, nekazaritza eta abeltzaintza erakundeak, landa eremuari lotutako erakundeak, tokiko ekintza taldeak, eta abar), haien gabeziak, beharrak eta berezitasunak ezagutzearen, eta, horrela, ustiapen edo establezimendu modu bakoitzaren berezitasunak ezagutzen ez dituzten eta sektore agroekologikoaren beharrei erantzuten ez dieten formakuntza oso orokorrak garatzea saihestearren. Gainera, ez da ahaztu behar beharrezkoa dela ekintzailtzean laguntzea eta kooperatibismoa sustatzea, bai ekoizleen elkarrekin, bai kontsumitzaileen kooperatiba integraletan.

2. Nekazari txikiei eta abeltzainei ingurumen jasangarritasuneko irizpideak erabiliz laguntzea

Ingurumen jasangarritasuneko irizpideak dituzten nekazari eta abeltzain txikiek erronka zail bati egin behar diote aurre: elikagaiak ekoiztea, energia krisiaren eta klima aldaketaren testuinguruan. Haien ustiategiek ingurumen, gizarte eta kultura funtzioak betetzen dituzte, eta zeregin garrantzitsua betetzen dute hartzten dituzten lurraldearen kontserbazioan eta hobekuntzan: biztanleria finkatzen dute eta landa ingurune biziari eusten diote. Agroekologiako ustiategi txikiei laguntzeko moduak honako hauek izan daitezke:

- Zerga pizgarriak, zerga onurak eta laguntzak eskaintzea, dibertsifikatzen duten, zikloak ixten dituzten, ekoizpena, eraldaketa eta merkaturatzea egiten dituzten... ustiategiei.
- Enpresak sortzeko laguntzak, ustiategi txiki jasangarriak sustatzeko.
- Ingurumen baldintzazkotasuna: jasangarritasun irizpideen arabera ekoizten duten nekazaritza ustiategiek zailtasunak dituzte beren jardueraren bidera-

garritasunean (errentagarritasun txikiagoa, eta ingurumen eta gizarte arloko kanpo efektu positiboak ez konpentsatzea). Kontua da konpentsazio bat ematea, jardunbide jasangarriengatik.

- Nekazaritza ingurumeneko eta klimako konpromisoengatik ordainketa: baliabide genetikoaren kontserbaziorako eta baliabide genetikoaren erabilera/garapen jasangarriarako laguntza.
- Administrazio publikoaren konpromisoa, jantoki publikoak (ikastetxeetakoak, adintsuen egoitzetakoak) horrelako ustiattegietako produktuekin hornitzeko.
- Ekoizpena kontsumitzaileekin batera planifikatzea. Orain arte, ez da horrelako plangintzarik egin. Hala ere, LGEko merkataritza teknikariak ekimen bartzuk bultzatu ditu, produktuen irteera errazteko. Adibidez, COVID-19aren pandemiak eragindako konfinamenduan, saltzen zailak izaten ari ziren produktuak saltokiei eskaini zitzaizkien.

3. Nekazaritza eta abeltzaintza lanetan jardunbide berritzaileak sustatzea

Nekazaritza jardunbideei dagokienez, trantsizio agroekologikoak honako gai hauei heldu behar die:

- Nekazaritza birsortzaileko teknika berritzaileak inplementatzea, ekoizpena hobetu eta dibertsifikatu ahal izateko, hala nola: Keyline diseinua; espezie anitzeko abeltzaintza sartzea eta abere horien txandakako larratze gidatua; karbonoa larre iraunkorren eta nekazaritzazko baso ustiapenaren bidez finkatzea; herbizidarik gabe zuzenean ereiteko teknikak; eta bioingarritze agroekologikoko planak.
- Berotegi efektuko gasen emisioak murrizten laguntzea, karbonoa atzemateko nekazaritzazko abeltzaintza jardunbideen bidez, «baserritik mahaira» estrategia hartuz eta Klimari buruzko Legea gureganatuz. Lege horren helburua da hemendik 2050era klimaren aldetik neutroa izango den Europar Bastasun bat lortzea.
- Fitosanitarioen erabilera murriztea.
- Lursail horietako bakoitzean karbonoa bahitzeko gaitasuna aztertzea.
- Klima aldaketaren ondorioei (hala nola plubiometria baxua eta tenperatura altuak) egokituko zaizkien ekoizpen prozesuak ikertzea.
- Bertako arrazak indarberritzea eta kontserbatzea.
- Tokiko barietateen eta barietate tradizionalen erabilera berreskuratzea.

Eta, bestetik, lurraldea agroekologiaren bidez egituratzeko, funtsezkoa izango da ekoizpen sektorea indartuko duen estrategia bat garatzea, kontsumitzaileentzat, ekoizleentzat, klimarentzat eta ingurumenarentzat bideragarria izango den elikadura kate bat sortuta, honako hauek baliatuz:

- Baterako merkaturatze planak garatzea eta aztertzea, ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegitik. Plan horiek elikadura sistema sendo eta erresiliente bat bermatuko dute, herritarrei tokiko iturri jasangarrietatik datozen elikagai fresko, osasuntsu eta ekologikoen hornidura nahikoa arrazoizko prezioan ziurtatuko diena, lurraldearen kanpo mendetasuna hautsita.

- Sinergiak eta lankidetzak sortzea, sektoreko erakundeekin.
- Proiektuari laguntasuna emateko eredu bat ezartzea, pilotua amaitu ondoren haren jarraipena bermatzearen.
- Lankidetzaren emaitzak zabaltzea, jardunbide egokitzat hartu ahal izan dadin eta errepikatu ahal izan dadin.
- Emakumeek eragile ekonomikotzat egiten duten lana bistaratzea, eta lan produktiboari eta erreproduktiboari buruzko ikuspegi feminista sartzea erakundearen agendetan.

4. Lur bankua

Arabako udalerrri gehienek udalerrrien nahiz administrazio batzarren lursailak dituztenez, interesgarria litzateke hitzarmenak bultzatzea, lur banku bat sortze aldera, lur horiek agroekologikoaren ikuspegitik lantzeko interesa duten pertsona guztientzat eskuragarri izan daitezen.

3.



UZTA ERALDATZEN Eraldaketa

Okintzako lantegi partekatuak dinamizazio tresna oso erabilgarria dira, elikadura sistema justu eta jasangarri bat eraikitzeko. Azpiegitura horiek bultzatzeak eta lurraldearen berezko produktuari balioa emateak onura handiak eragin ditzake, eta tokiko ekonomia suspertzen lagundu. Produktuaren balio erantsia handitzeko behar diren prozesuak eta azpiegiturak bermatu nahi dira.

Ekimen horiek motor txikitzat hartzen ditugu. Sareko baliabideak beste produkzio proiektu batzuekin, beste okintza lantegi batzuekin, merkatuekin edo merkataritza txikiarekin eta udal administrazioen konplizitatearekin optimizatzeko gai baldin bagara, motor horiek tokiko ekonomia suspertu eta indartu dezakete, landa ingurunea hirietara hurbildu, eta enplegua sortu, landa eremuen garapen jasangarriko bidetzat.

Ekoizpen agroekologikoaren elikagaien eraldaketak funtsezko zenbait kontu argitzen ditu, hala nola:

- Urtarokotasuna, komertzializazioaren hurbiltasuna edo proiektuen aniztasuna, soberakinen aprobetxamendua ekoizpen handiagoko uneetan, edo ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko aldentzea gertatzen den uneetan.
- Mota horretako ustiapenek produktuaren balio erantsia handitzea ahalbidetzen dute, dela eraldaketa maila handiagogatik, dela zuzenean edo kanal berezietan edo hurbileko kanaletan merkaturatzeko aukeragatik.
- Era berean, elikagaien artisau eraldaketa funtsezko alderdia da nekazaritzako elikagaien sektoreko genero desberdinkeriei aurre egiteko. Izan ere, historikoki emakumeek egindako lana izan da, eta nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko beste sektore batzuek baino emakume gehiago enplegatzen ditu orain ere.

Alabaina, gaur egun, elikagaien eraldaketa gauzatzean ere badira zenbait arazo espezifiko:

- Higiene eta osasun arloko araudia, ez baitago produkzio txikietara egokituta, eta hura interpretatzeari dagokionez zailtasunak izaten baitira administrazioarekin.
- Elikagaiak eraldatzeko prozesuak (artisau erakoak) ez bereiztea.
- Elikagaiak eraldatzeko instalazioei eskatzen zaizkien baldintzak betetzeko zailtasunak (ekonomikoak, profesionalak eta administratiboak).
- Ekoizpen txikietara egokitutako instalazio kolektibo eta publikoen beharra (hiltegiak, okela zatikatzeko gelak, okintza lantegiak, eta abar); eta are larriagoa, ekoizpen ekologikoari buruzko erregelamenduaren arabera ziurtatuta dauden eta beren produktua bereizi nahi duten ekoizpenen kasuan. Elikagaien eraldaketa, artisau ekoizpena eta higiene nahiz osasun araudia lotzen dituzten alderdi horiek konpondu behar dira, eragin zuzena baitute proiektu agroekologikoen bideragarritasunean.

Hartara, Lautadan ondorengo ekimen hauek identifikatu ditugu:

1. Elikagaien artisau eraldaketa txikirako azpiegiturak. Ekoizleei laguntzea, instalazioak garatzetik eta kooperatibak eratzea sustatzetik abiatuta.

Nekazaritza jardueretarako instalazioek, eskualdeko ekoizleentzat erreferente direnek, zerbitzu bat emateaz gain, loturak sor ditzakete eta, azkenik, lan kooperatibak sortzea ekar dezakete. Eskualdean badira mota horretako ekimenen zenbait adibide:

- **Okiturriko hegazti eta untxi hiltegia:** Lautadako LGEk eta Lautadan Bertan sozietate kooperatiboak sustatua. Proiektu hori LGEk bultzatutako partaidetza prozesu baten bidez sortu zen; sektoreak nekazaritza produktuen eraldaketan dituen beharrak hautemateko prozesu bat izan zen. Behar hori identifikatu ondoren, bideragarritasun azterketa bat egin zen, eta ideia berriz definitu zen, espazio modular bat aukeratuta.
- **Lautadako Lekaleak Elkartea, lekaleak sailkatzen eta garbitzen diharduena:** elkartea horren helburua da tokiko ekoizpeneko laboreak balorizatzea eta Arabako Lautadan lekaleen laborantza sustatzea. 50 metro koadroko espazioa dute garbiketarako, eta beste 50 metro lekaleak ontziratzeke, osasun erregistroarekin.
- **Ekia eta Lurra S.L., olio estrusioko enpresa:** ekilorearen eta koltzaren nekazaritza ekologikoan eta konbentzionaletan dihardu, besteak beste, ondoren pipak prentsatu eta olio bihurtzeko, botilaratzeko eta handizkako zein txikizkako komertzializazioa egiteko. Dokumentu hau idazteko unean, liho-ekoizle bat instalazio horiek olio ekoizteko erabiltzea aztertzen ari da.
- **Gari errota:** «Lautadan irina landuz» lankidetzaren proiektua (La Caixa Fundazioa). Hiru ekoizleek, Neikerrekin batera, ogitarako bi edo hiru hazi eman dituzte, eta ohiko hazitik hazi ekologikora igarotzeko asmoa dute. Maeztuko eta Iurretako okintza lantegietan probak egingo dira, ikastearren eta jardueren ekonomikoa egiteko aukera aztertzearen.
- **Sukalde kolektiboa:** identifikatu da sukalde bat behar dela, non kolektiboek eta pertsonak sukaldaritzako ekintzailtzak garatu ahal izango dituzten osasun erregistroarekin. Proposamenari buruz hausnarketa egiten ari da, eta, horretarako, 2021eko amaieran, landa garapenaren astearen esparruan, jardunaldi bat egin zen. Bertan, Estatuko hainbat tokitako sukalde eta okintza lantegi partekatuen esperientziak ezagutu ziren (Aragoiko Adapara, Madrilgo La Kitchen eta Urduñako okintza lantegi partekatua).

2. Kalitate bereiziko artisau elikagaiak sustatzea

Hurbiltasunezko artisau elikagaiak (horietako batzuk, tokiko bereizgarriz hornituak) sustatzeko kanpainak ezagutzera ematen dituzte produktu horiek, eta kontsumitzaileek produktu horiek identifikatzea errazten dute. Horretarako, hainbat ekintza egin daitezke, hala nola dastaketak, azoketara joatea, produktuak saltzea leku giltzarrietan —hala nola turismo bulegoetan—, eta abar. Lautadako LGEkoak, adibidez, merkatuetara joan dira tokiko produktuak ezagutzera emateko. Aizkorriko parketxean eta Aguraingo turismo bulegoan ere tokiko produktuak saltzeko guneak dituzte. Lautadako Lekaleak Elkartearen kasuan, logotipo bat eta marka komertzial bat sortu dira, Lautadako Lekaleak, produktua merkaturatzeko.

Sakontzen jarraitzeko proposamenak

1. Elikagaien ekoizpen eta eraldaketa txikirako araudiak malgutu ditzaten sustatzea. Formakuntza eta aholkularitza

Araudi horiek malgutzeko lana administrazioen mende dago zuzenean, eta, beraz, administrazioak dira lan egin behar dutenak hori gauzatzeko. Toki administrazio txikienean ere zeregin garrantzitsua bete dezakete lan horretan guztian. Alde batetik, araudi horien ardura duten erakundeetan eragin dezakete, aldaketak bultzatzeko. Bestetik, nahitaez bete beharreko higie eta osasun araudira hurbiltzeko eta aholkuak emateko materialak sor ditzakete.

Era berean, interesgarria litzateke aztertzea nola aldeztu eta erraztu daitekeen eraldaketa azpiegiturak garatzea, udalerrietako Hiri Antolamenduko Plan Orokorretan (HAPO) aldaketak eginez. Gaur egun, araudi horren zurruntasunak mugatzen du azpiegitura horien garapena.

4.

**LURRALDEA AGROEKOLOGIAZ
POLINIZATZEN
Banaketa**



Beharrezkoa den logistika banatzea eta garatzea, kontsumitzaileak ekoizleengana hurbiltzearen, logistikari eta banaketari aurre egiteko orduan ekoizpen proiektu txikiek dituzten arazoak konpontzeko asmoz.

Proiektu txikien kasuan, baterako banaketa sare baten parte izateak eta, lankidetzaren bidez eta hurbileko produktuen katalogo bat sortuz, merkaturatze kanal berriak esploratzeak proiektua finkatzea eta pertsona gehiagorengana iristea eragin dezake. Kontua da sarean lan egiteko espazioak eta ekimenak sortzea, erabilgarri dauden merkaturatze bideetan hornidura hobetu eta erraztuko dutenak: auzoko denda txikiak, kontsumo taldeak, jantokiak, eta abar. Ildo horretan, lankidetzaren sare horiek eraikitzeko, administrazio publikoek ahalmena dute logistika plataformak eta banaketa azpiegiturak garatzeko espazio publikoak eskaintzeko, edo, bestela, haien sorrera finantzatzeko. Horrelako azpiegituren alde egiteak eta horiek babesteak zero kilometroko elikadura indartzen du, eta hura osatzen duten proiektuen jasangarritasun ekonomikoa eta ingurumenekoa hobetzen laguntzen du.

1. Produktuak banatzeko eta jasotzeko espazioak lagatzea

Aguraingo eta Barrundiako ekonomatuetan, batez ere eskaripeko elikagaiak banatzen eta biltzen dira, hala nola haragi produktuak (oilaskoa, txahala eta arku-meak), eta Nafarroako Errigora ekimenari egindako eskaerak zentralizatzen dira.



Sakontzen jarraitzeko proposamenak

1. Banaketa (logistika) egiteko azpiegiturak sortzea, kooperatibak eratuz eta haiek sortzeko aholkularitza emanez

Eskualdeko ekoizleekin landu da gaia, baina, oraingoz, zuzeneko salmentako ekoizle gehiago ez dauden bitartean eta azken kontsumitzaileari zuzendutako produktu eskaintza handiagoa dagoen bitartean, ez da beharrezkotzat jotzen horrelako azpiegiturarik instalatzea.

2. Food hub direlakoak (bilketa eta banaketa nodoak) sortzea

Food hub direlakoak (bilketa eta birbanaketa nodoak) elikagaiak tokian-tokian banatzeko zailtasunei konponbidea emateko helburuarekin sortu dira. Landa munduaren eta hiri munduaren artean nolabaiteko oreka sortzea ahalbidetzen dute, eta tokiko elikadura sistemak hobetzen dituzte. Kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko lotura errazten dute, eta ekoizpena kontsumoaren arabera planifikatzeko aukera ematen dute, ekoizleek merkataritza lanak egin ditzaten erraztuz, kostuak murriztuz eta kontsumitzaileen beharrak aseiz.

Food hub bat merkataritza kudeaketako egitura bat duen instalazio bat da, erdigunean kokatua, eta tokian edo eskualdean ekoiztutako elikagaiak gehitzea, biltegitratzea, prozesatzea, banatzea eta/edo merkaturatzea errazten du. Elikagai zentro horien helburu nagusietako bat da nekazari txikiei eta ertainei merkatu handiagoetan edo gehigarrietan sartzeko aukera ematea. Elikagai zentroek, orobat, betetzen dituzte elikadura sistemen azpiegiturako hutsuneak, hala nola produktuen garraioa, biltegitratzea eta prozesamendua.

3. Ekoizleen arteko logistika koordinatua

Ekoizleek sarritan aurre egin behar izaten dioten arazo nagusietako bat da ez dagoela banaketa azpiegiturarik tokiko produktu eskari oso dibertsifikatuari erantzuteko, eta, beraz, askotariko tipologia, ohitura eta premiak dituzten kontsumitzaileen beharrei erantzuteko gai izateko.

Elikagaiak baserrietatik kontsumitzaileengana modu zuzenagoan eramateko, banaketa sistema eraginkor eta efizientea behar da baserrietako janaria jasotzeko eta bilketa eta birbanaketa nodoetara (*food hub*) eta nodotik kontsumitzaileera eramateko, betiere elikagaien kalitate egokiari eutsiz.

5.



AGROEKOLOGIA
HERRITARRENGANA HURBILTZEN
Merkaturatzea

Lurraldean apustu agroekologikoak esan nahi du tokiko nekazaritza jasangarria babestea, laguntzea eta egokitzea, gure lurraldeetako elikadurako giltzarri gisa. Gaur egun, gero eta kontsumitzaile gehiagok eskatzen dute harreman berriak eraikitzea nekazaritzaren eta gizartearen artean, landa eta hiri eremuen artean, kontsumitzaileen eta ekoizleen artean. Gero eta ohikoagoa da nekazari eta abeltzainen, artisauen eta ekoizle ekologikoen taldeak, kontsumitzaile taldeekin batera, konfiantzan eta kalitatean oinarritutako merkaturatze bateratu eta zuzeneko ekimenak garatzen aritzea.

Merkaturatze modu berriak dira, horietako asko kontsumitzaileak eurak buru dira, kanal labur berri horiek bultzatzen eta sustatzen dituztenak, ekoizleen diru sarrerak hobetzeko, nekazaritza sistema jasangarriak sustatzeko eta tokiko garapen ekonomikoari laguntzeko ahalmena baitute. Gainera, lagungarri izan daitezke erregai fosilen erabilera murrizteko, informazioa eskuratzeko eta kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko komunikazio zuzenagoa izateko.

Lautadan badira merkaturatzeko bide alternatibo horiek garatzeko zenbait estrategia:

1. Produktu agroekologikoen salmenta bultzatzen duten udal eta/edo eskualde merkatuak sustatzea

Elikagaien banaketa kate handiek ia merkatu osoa hartzen duten testuinguru honetan, proiektu agroekologikoak garatu eta bultzatzeko, beharrezkoa da administrazio publikoen laguntza, hurbiltasunezko kontsumo moduak (merkaturatze kanal laburrak) ezagutaraztearen. Urrats bat harago joanda, oso garrantzitsua litzateke aldizka ekoizleentzako merkatuak egitea, lehentasuna emanda kalitatearen, hurbiltasunaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritutako antolaketa ereduaren aldeko apustua egiten duten ekoizpenei.

Lautadan aldizkako azokak egiten dira, hala nola Dulantziko San Blas Azoka, Araiako Artzain Eguna, Aguraingo jaietako nekazaritza eta abeltzaintzako makinaren erakusketa, edo Lautada Egunaren esparruan antolatutako azokak. Era berean, aseroko azokak antolatzen dira Agurainen, Asparrenean eta Dulantzin, halako produktuak saltzeko.

Agurainen, tokiko produktuak soilik hilean behin eskaintzeko aukera aztertu da, elikagai horiek indartzeko helburuarekin. Hala ere, ekimena ez da abian jarri, ekoizle gutxi dutelako interesa, dela denborarik ez dutelako, dela salmenta bolumenak konpentsatzen ez duelako. Arazorik handiena da Lautadan, nahiz eta lehen sektoreak Euskal Autonomia Erkidegoko beste eremu batzuetan baino garrantzi handiagoa duen, ekoizpenaren zati txiki bat baino ez dagoela zuzeneko salmentara eta barne kontsumora bideratuta, eta batez ere haragi produktu gutxi batzuetan dagoela zentratuta, hala nola gaztan, patatan eta lekaleetan. Horregatik, beharrezkoa da ekoizpenak dibertsifikatzea eta haien eraldaketak zabaltzea, hurbileko kontsumora bideratzeko. Horren adibide da zereala, landatutako azaleraren % 60 baino gehiago baita, baina ez baita ezer bideratzen giza kontsumora.

2. Merkataritza elektronikoko plataformak

Arabako Lautadara mugatzen ez den arren, Araban Araba Market plataforma dugu, Arabako Foru Aldundiaren babesarekin. Haren helburua da probintzia osoan landa eremuko negozioei laguntzea. Saltokiez gain, webguneak probintzia osoan egiten diren azokak ere jasotzen ditu, eta saltokietan erosteko bonuen eta txekoen kanpainak sustatzen ditu.

Sakontzen jarraitzeko proposamenak

1. Merkaturatzeko eta zuzeneko salmentarako kanal laburren aldeko araudia sustatzea

1305/2013 (EB) Erregelamenduak honela definitzen ditu merkaturatze kanal laburrak: «banaketa kate bat, non eragile ekonomiko kopuru mugatu batek esku hartzen duen, lankidetzan, tokiko garapen ekonomikoan eta ekoizleen, eraldatzaileen eta kontsumitzaileen arteko hurbiltasunezko harreman geografiko eta sozialetan dihardutenak». Administrazioek ahalmena dute araudiak garatzeko, merkaturatze kanal laburren eta/edo zuzeneko salmentaren esparruan. Gure testuinguruan, hori autonomia erkidegoko administrazioen esku-mena den arren, toki erakundeek eragin dezakete eta aldaketak susta ditzakete zentzu horretan. Hurbileko produktua sustatzeaz gain, komeni da neurri horiek arreta berezia eskaintzea ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritutako enpresa ereduari, hala nola kooperatibei.

2. Baterako merkaturatzea

Kooperatibak funtsezkoak dira baterako merkaturatzea egin ahal izateko. Merkaturatze estrategia koordinatuak garatzea errazten dute, eta beren negozioak hobeto kudeatzeko eta maneiatzeko aukera ematen diete bazkideei. Gainera, kooperatibek bideratutako eskala ekonomiei esker, ekoizleek berrikuntzan inbertitu dezakete, eta, horrela, merkatuen eskarrietara egokitzeko eta produktuen merkaturatzea hobetzeko aukera dute.

3. Tokiko marka sortzea

Merkaturatze kanal laburrak sustatzen laguntzeko, tokiko etiketa edo marka bat sortzeak aukera ematen du hurbiltasunean ekoiztutako elikagaiak bistaratzeko eta bereizteko, eta, gainera, jasangarritasun irizpide batzuk txertatzen ditu (ekologikoa, artisautzakoa, berme zigilu parte-hartzaileak, eta abar).

4. Ostalaritza sektorearekiko (hotela, jatetxeak eta cateringak) konexioa

Azken bost urtean, ACICSAk eta Lautadako LGEk batera «Dastatu Lautada» izeneko ekitaldia egin dute hiru hilean behin, ostalaritza establezimendu bat, produktu bat eta ekoizle bat sustatzeko. Horretarako, salerosketa akordioak finkatzen dira. Aurkezpen bat egiten da, dastaketarekin eta lotutako lehiaketa txiki batekin.

6.

AGROEKOLOGIA KONTSUMITZEN Kontsumoa



Kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen aldeko apustua.

Elikagaien kontsumo agroekologikoa sustatzea, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzailearen aldeko apustua eginez, beharrezkoa da nekazaritzako elikagaien eredu barneratzaile, bidezko eta jasangarri berri bateranzko trantsizio prozesu bat sustatzeko. Produktu agroekologikoak kontsumitzen ditugunean, tokiko eta sasoiko produktu ekologikoen aldeko apustua egiten ari gara, eta horrek ingurumenaren gaineko azterna ekologikoa minimizatzen du. Beraz, gure elikagai kontsumoaren eredu aldaketa orokortu batek berehalako eragina izango luke berotegi efektuko emisioen murrizketan.

Kontsumitzaile kontziente eta arduratsuak ekoizpen eta kontsumo aukera berriak bilatzen ditu, eta dauzkan aukeren artean hautatzen saiatzen da, produktuaren prezioa edo kalitatea baino zerbait gehiago begiraturaz; horrez gain, kontuan hartzen du ea nork eta non ekoiztu zuen eta zer enbalaje duen, besteak beste.

Administrazio publikoek ekimenak bultzatuz kontsumitzaileen artean ekoizpen agroekologikoa ezagutarazteko, dela komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen edo dastatze jardunaldien bidez, dela tokiko saltokiekin akordioak eginez inguruko produktuak merkaturatu ditzaten, edo dela ekoizleak eta bestelako kontsumo ereduak ikusarazteko jardueren bidez.

Azkenik, zuzenean ekoizleei elikagaiak batera eta aldizka erosten dizkieten kontsumo sareak eta taldeak babestea eta sortzea da hurbiltasunezko produktuen eta produktu agroekologikoen kontsumoa bultzatzeko beste modu bikain bat.

Lautadan horrelako ekimenak egin dira, eta horietako asko LGEk eta Merkataritzako Bulego Teknikoak (OTC) sustatu dituzte. Hona hemen horietako batzuk:

1. Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak

- «Bizi naizen tokian erosten dut. Erosten dudan tokian bizi naiz», 2021eko Eguberrietan.
- «Zurekin orain inoiz baino gehiago / Contigo ahora más que nunca», 2021ean.

2. Dastaketen eta sukaldaritza lantegien jardunaldiak

- Iruraiz-Gaunako Udalak sustatutako lantegiak:
 - Pintxo beganoen lantegia (2021-07-19).
 - Ardoa dastatzea (2021-10-31).
 - «LA PATATA» sukaldaritza lantegia (2022-04-27).
- «Baratze ekologikoa» lantegia, Donemiliagan, 2022ko maiatzean eta ekainean.
- Hurbileko produktuekin egindako sukaldaritza osasungarriko lantegiak, Asparrenean, 2022ko maiatzean.
- Haurrentzako sukaldaritza lantegiak, barazki ekologikoekin, Agurainen, 2016an.
- Arabako Lautadako XII. Gastronomia Jardunaldiak, turismo bulegoak bultzatuak. Ogia, lekaleak, perretxikoak, ehizako produktuak eta abar aur-

ki izaten dira hor. Udazkenean egiten da, eta jatetxeei tokiko eta sasoiko produktuarekin menu bat egiteko eskatzen zaie. Menua erosten duenak doan bisitatu dezake eskualdeko beste baliabide turistiko bat.

- Dastatu Ezazu Araba kanpaina, AENKOMER erakundearekin.

3. Ekoizleak eta beste kontsumo eredu batzuk bistaratzea: ekoizleen mapak

Lautadako LGEak eskualdeko ekoizleak identifikatzen dituen mapa bat egin du, horiek bistartzeko eta kontsumitzaileentzat eskuragarriagoak izateko asmoz.

4. Tokiko produktuak saltzearen saltokiekin egindako akordioak

Merkataritzako Bulego Teknikoak tokiko kontsumoa sustatzeko planak eta proiektuak bultzatzen ditu Lautada Bizirik ACICSA eskualdeko merkatarien elkartearekin batera, eta ekoizleen eta establezimenduen arteko konexioa eta koordinazioa bultzatzen ditu. Horretarako, adibidez, ekoizleekin harremanetan jartzea erraztu die saltokiei. Gainera, COVIDaren pandemian, tokiko merkataritzan irtenbiderik ez zuten produktuak banatzen lagundu zuen Merkataritzako Bulego Teknikoak

5. Kalitate bereiziko artisau elikagaiak sustatzea

Hurbiltasunezko artisau elikagaiak (batzuetan, tokiko bereizgarriz hornituak) sustatzeko kanpainak ezagutzera ematen dituzte produktu horiek, eta kontsumitzaileek produktu horiek identifikatzea errazten dute. Horretarako, hainbat ekintza egin daitezke, hala nola dastaketak, azoketara joatea, produktuak saltzea leku giltzarrietan —hala nola turismo bulegoetan—, eta abar. Lautadako LGEkoak, adibidez, merkatuetara joan dira, tokiko produktuak eramanda. Aizkorriko parketxean eta Aguraingo turismo bulegoan ere tokiko produktuak saltzeko guneak dituzte.

6. Deskontu bonuak bultzatzea

- Tokiko kontsumorako «30 erosi 20 ordaindu» bonua, Eusko Jaurlaritzak 2022an sustatua.
- «+8 txekeak» programa: % 40ko deskontu bonuak, Araba Market programari atxikitako negozioetan erabil daitezkeenak.
- Lautada Bizirik elkarteak 2022ko irailean sustatutako bonua: 550 bonu, 5 euroko opariarekin, saltoki elkartuetan erosteko.
- Lautada LGEk sustatutako bonuak, azokara inoiz joan diren Lautadako ekoizleei erosteko: 250 bonu, 5 euroko opariarekin.
- Agurain Bonua: tokiko merkataritza sustatzeko deskontu bonuen salmenta.
- Dulantzi Bonua: COVID-19aren garaian tokiko merkataritza eta ostalaritza suspertzeko deskontu bonuak.

7. Auzo baratzeak, kontsumoari buruz sentsibilizatzeko

Auzo baratzeak, hala nola Burguko Biolortu, baliagarriak izan daitezke herritarrak sentsibilizatzeko eta nekazaritza produktu ekologikoen kontsumoa sustatzeko.

8. Lurraldeko kontsumo ohiturak ezagutzeko diagnostikoak eta azterlanak egitea

Hurbiltasunezko saltokietan kontsumitzaileek duten portaera eta tokiko produktuen kontsumoa ezagutu beharra ikusita, Mendinetek azterlan bat egin zuen Euskal Autonomia Erkidego osoko LGEentzat, *Producto local, personas consumidoras y comercio de proximidad* izenekoa.

Gainera, Aguraingo Udalak eta Dulantziko Udalak MSPB (Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia) azterlanetan lan egin dute azken urteotan. Azterlan horien helburua da udalerriko merkataritza jarduerak aurrera egitea eta ingurunea hobetzea. Azterlan horiei esker, etorkizun hurbilak ekar ditzakeen aukera eta arrisku-kuetarako egokitu daiteke tokiko merkataritza. Azterlan horietan, bi udalerrietako merkataritza eskaintza eta eskaria aztertu dira, eta bertako biztanleen erosketa ohituren ezaugarriak adierazi dira. Plan horiei esker, finantzaketa publikoa lortu da trafikoa erregulatzeko sistema berriak gauzatzeko, turismo kartelak jartzeko eta tokiko erosketarekiko sentsibilizatzeko, hutsik dauden lonjetan argazki panelak jartzeko, eta merkataritza eta kultura informazioa ematen duten argizko panelak jartzeko.

Bestalde, Merkataritzako Bulego Teknikoa harremanetan dago Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Unibertsitate horri merkataritza eskaintza eta eskaria aztertzeko proposamenak helarazten zaizkio, eta ikasle batzuek gradu amaierako lan proiektutzat lantzen dituzte. Azken urteotan, honako lan hauek egin dira:

- *Compras online: hábitos de la clientela alavesa y opiniones sobre su impacto en la sostenibilidad y en los comercios del entorno (2022).*
- *Identificación de las estrategias y acciones de promoción y fidelización más atractivas para la clientela potencial de los comercios físicos alaveses (2021).*
- *Las nuevas tecnologías en el comercio minorista alavés (2019).*



Sakontzen jarraitzeko proposamenak

1. Tokiko produktuen eta produktu ekologikoen erosketa publikoa

Erosketa publikoa da administrazio publikoei —zerbitzu publikoak emateko eraginkorrak eta funtzionalak izan daitezen— hornidura ematera bideratutako aurrekontua. Baina, erantzukizun publikoaren ondorioz, produktuak, zerbitzuak eta obrak erostean eta kontratatzean, kostu txikia izan dezatela kontuan hartzeaz gain, beste irizpide batzuk ere aztertu behar dira, hala nola egiten den eragiketa bakoitzaren ondorio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak.

Ildo horretan, elikagaien erosketa publikoa irizpide ekologikoetan eta hurbiltasunezkoetan oinarrituko balitz, eta lehentasuna emango balie ekonomia sozial eta solidarioaren printzipioetan oinarritutako enpresa erduei (kooperatibak, esaterako), onurak ekarri ahalko lituzke tokiko ekonomiarako, enplegua zuzenean edo zeharka sortuz; aukera emango luke lurraldea dinamizatzeko eta landa mundua errealizatzeko, elikagaien kalitate nutritiboa handitzeko, kutsadura ondorioak murrizteko (esportazioko elikagai gutxiago eta ontzi gutxiago, eta abar). Hurbiltasunezko elikagai osasungarri eta jasangarrien erosketa publikoa sustatzeak tokiko ekonomia dinamizatuko duen efektu biderkatzailea eragin dezake (bai tokiko ekonomia hertsiki produktiboa, bai horrek sor ditzakeen konexioak). Bultzada handia izan daiteke proiektu agroekologikoetarako, eta, gainera, elikadura eredu berri bat eraikitzeke hain garrantzitsuak diren balio aldaketa, hezkuntza eta elikagaien kultura bultzatu ditzake gizartean.

2. Kontsumo taldeak sortzen eta kontsumo kooperatiben artean laguntza sareak eratzen laguntzea

Kontsumo taldeak funtsezko euskarria dira ekoizpen agroekologikoaren sistemarako, eta onurak ematen dizkiete kontsumitzaileei zein ekoizleei. Kontsumitzaileek badakite nondik datozen beren elikagaiak eta nola ekoizten diren, eta prezio arrazoizkoagoan lortzen dituzte, zuzenean ekoizleengandik erosten dituztelako. Horrek, berebat, ekoizleen diru sarrerak handitzea eragiten du, eta beren diru sarrerak aurreikusteko aukera ematen die. Gainera, kontsumo taldeek merkaturatze prozesuak sinplifikatzen dituzte, eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman estuagoak eraikitzea errazten dute.

Ildo horretan, administrazioek horrelako taldeak sortzea sustatu beharko luke, eta bilketa guneetarako espazioak laga beharko lituzkete, adibidez.

3. Nekazaritza produktu ekologikoak saltzen dituzten saltokiak bistaratzea eta sustatzea

Aipatu dugunez, Arabako Lautadan ekoizleen mapa bat dago. Hala ere, komeni litzateke lan hori zabaltzea eta produktu agroekologikoak eta hurbiltasunezkoak dituzten saltokiak bistaratzea eta balioestea. Horretarako, tresna baliagarria izan daiteke mapa interaktibo bat sortzea, bai web formatuan, bai aplikazio formatuan, nekazaritza produktu ekologikoak eskaintzen dituzten establezimendu guztiak biltzeko. Horrekin batera, saltokiek beren lokaletan jarriko dituzten be-reizgarriak ere erabil daitezke, kontsumitzaileek errazago identifika ditzaten. Gainera, saltoki horietan ibilbideak antolatzeak horiek bistaratzen eta merkatarien eta kontsumitzaileen artean harreman estuagoak eraikitzen laguntzen du.

7.



LURRERA BUELTAN **Birziklapena eta intsumoak**

Lurraldean materialen zikloa ixten.

Ekonomia zirkularrak proposatzen duenez, baldintza egokiak sortu behar dira «hondakin» guztiak materiaren ziklo berri baten oinarri bihurtzeko, energia kontsumo txikiagoarekin, eraginkortasun handiagoarekin eta berotegi efektuko gasen emisio txikiagoekin, ekonomia eta ingurumen kostu txikiagoak sortuz.

Lan ikuspegi berri horrek ekoizpen eredua eta gizarte eredua aldatzeko oinarriak ezartzen ditu, gutxiagorekin gehiago egiteko, eta, horrela, aberastasun eta enplegu gehiago sortzeko, materiaren zikloak tokian-tokian birkokatuz eta birdiseinatuz. Bestalde, hondakin kontzeptua ezabatzean, edozein jarduera ekonomikotako output guztiak azpiproductu bihurtzeko eta aprobetxatzeko ahaleginak egiten ditugu.

Agroekologia ekonomia zirkularraren ikuspegiari lotuta dago, eta tokiko merkatuak suspertuko dituen eta enplegu aukerak sortuko dituen elikagaiak ekoizteko eta kontsumitzeko beste eredu bat esploratzeko estrategiak diseinatzen ditu. Izan ere, biohondakinak aprobetxatzen ditu, kudeaketa kostuak murrizten ditu, energia kontsumoa eta berotegi efektuko gasen emisioak murrizten ditu, karbonoa finkatzen du lurzorua ongarrirituz, eta ekoizleengandik eta kontsumitzaileengandik hurbil egituratzen da.

Hala, bada, ikuspegi hori sustatzen lagun dezaketen Lautadako ekimenetako batzuk honako hauek dira:

1. Elikagaiak xahutzeari buruz sentsibilizatzeko kanpainak

- Elikagaiak Galtzeari eta Xahutzeari buruz Kontzientziazteko Nazioarteko Egunaren eta Euskal Autonomia Elkartearen elikagai xahuketaren aurkako plataformaren ekintzen (2020) berri ematea. Burguko Udala.

2. Komunitateko eta etxeko konpostajea

Eskualdeko udalerrri gehienek komunitateko edo etxeko konpostajea egiten dute, eta, ondoren, inguruko lurretan erabiltzen dute. Burgun, adibidez, etxeko eta komunitateko konposta egiten da, eta hori egiten duten pertsonak hobariak jasotzen dituzte zabor tasetan (% 80, etxeko konpostaren kasuan; eta % 40, komunitatekoaren kasuan). Azken hori udalerriko lorategietan erabiltzen da. Gaur egun, herriko berrogei bat etxebizitzak egiten dute konposta. Inausitakoa, bestalde, Turrutxipi enpresara eramaten da, eta hark birrindu eta bere lurretan erabiltzen du. Gainera, Udalak dirulaguntza eskatu du atez ateko bilketa ezartzeko.

Etxeko eta komunitateko konpostajea bultzatzen duten beste herri batzuk: Araia, Arratzua-Ubarrundia, Iruraiz-Gauna, Zalduondo (hobaria ere ematen du) eta Dulantzi. Azken horrek, gainera, sentsibilizazio kanpaina bat egin zuen, eta doako formakuntza lantegiak antolatu zituen. Lantegi horietan, konpostajeari buruzko material didaktikoak banatu ziren. Donemiliagan, konpostajea sustatzeko asmoz, biohondakinak balorizatzeko proiektu bat egin zen Hobeki Elkartearekin batera. Proiektu horretan, komunitateko konpostajerako eremuak eta lorategiko hondakin berdeak biltzeko eremuak sortu ziren, formakuntza saioak egin ziren, eta laguntza zerbitzu bat jarri zen herritarren esku.

Beste alde batetik, Arabako Lautadako kuadrilla eta Zalduondoko, Asparreneko eta Donemiliagako udalak Ekaia Eko Compost enpresarekin lankidetzan aritu dira. Enpresa horrek janari hondarrak dituen ongarrri organikoa ekoizteko aholkularitza ematen du.

Sakontzen jarraitzeko proposamenak

1. Bioongarrien autoekoizpena

Ongarri kimikoak garestitu dira, eta, gainera, ez dira onuragarriak ingurumenarako. Horiek horrela, kanpoko intsumoen mende ez izateko, oso lagungarria litzateke ongarriak, ongarri likidoak, fungizidak, pestizidak eta salda mineralak fabrikatzea, bai eta lurzoruko mikroorganismoak ekoiztea ere, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako hainbat erabileratarako. Produktu horiek guztiek eraginkortasun handia dute, eta mundu osoko milaka nekazarik frogatu dute hori. Kostu askoz ere txikiagoa dute, bionekazaritza industrian eros ditzakegun antzeko produktuek baino; eta, gainera, edonork eskura dituen hurbileko osagaiekin egiten dira.

2. Agrokonpostajeko instalazioen garapena

Agroekologiaren eta ekonomia zirkularraren planteamendutik, hondakinen zati organiko horren tratamendurik efiziente eta merkeena nekazaritza lurrei dagokie. Nekazaritzako eta abeltzaintzako beste hondakin batzuekin batera tratatzen dituzte etxeko hondakin horiek, udal hondakinen zati organikoaren agrokonpostajea egitearren. Araban dagoeneko bi esperientzia pilotu abiarazi dira Arabako Mendialdeko kuadrillan eta Gorbeialdeko kuadrillan, eta interesgarria litzateke ildo horretan sakontzen jarraitzea.



8.

**AGROEKOLOGIATIK ERALDAKETA
EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATZEN**
Ekonomia soziala eta solidarioa

Dagoeneko ikusi ditugu trantsizio agroekologikoa egiteko kontuan hartu beharko liratekeen arloak. Horiek horrela, ezinbestekotzat jotzen dugu aztertu ditugun arlo guztiak ekonomia sozial eta solidarioan (ESS) oinarritutako eredu ekonomiko baten bidez lotzea. Definizioz, ESSak ekonomiaren erdigunean jartzen du pertsonen eta planetaren ongizatea; eta baliabideak, aberastasuna, ekoizpena eta kontsumoa helburu hori lortzeko bitarteko huts gisa dauzka. ESSaren esparruak aukera ematen digu proposamenean balio unibertsalak txertatzeko, hala nola ekitatea, justizia, senidetasun ekonomikoa, gizarte elkartasuna eta zuzeneko demokrazia. Eta, ekoizteko, kontsumitzeko eta banatzeko modu berri bat den aldetik, aukera bideragarri eta jasangarri gisa proposatzen da, premia indibidual eta globalak asetzeko. ESSaren babesean sortutako proposamen agroekologikoen ezaugarri espezifikoa da —lurraldeari atxikitako ondasunak, zerbitzuak eta ezagutza ekoizteaz eta helburu ekonomikoak bilatzeaz gain— helburu sozialak ere lortzen dituztela eta elkartasuna sustatzen dutela.

ESSren jardunbideak eta tresnak daude ziklo ekonomikoaren eremu guztietan, bai ekoizpenean, bai banaketan, finantzaketan eta kontsumoan. Hala ekonomia sozial eta solidarioarako nola agroekologiarako, bideragarritasuna eta jasangarritasuna sustatzen dira nekazariak eta kontsumitzaileak taldeetan, elkarrekin edo kooperatibetan antolatzearen bidez ere. Trantsizio agroekologikoei indartzeko aukera ematen dute, beste antolaketa eredu batzuk eratu, hala nola ekonomia sozial eta solidariotik bultzatzen direnak (kooperatibak, esaterako). Egin ditugun proposamenetako batzuek —hala nola ekoizpenerako eta eraldaketarako azpiegiturak eraikitzeak edo nekazaritzako konpostaje instalazioak instalatzeak—, ikuspegi horretatik ikusita, inguruko elikagai osasungarri, lokal eta jasangarrien ekoizpena areagotuko duten lanpostu endogenoak sortzea sustatzen dute.

Horregatik, funtsezkotzat jotzen dugu gogoeta egitea, ea kooperatibismoaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren egiturek enplegurako zer aukera edo etorkizun irekitzen dituzten. Kooperatibismo sozial agroekologikoa —parte hartzaileen arteko asoziatibismo ekonomiko bat baino gehiago baita— harago doa, eta ekoizpeneko, kontsumoko, autokudeaketako, independentziako, antolaketa demokratikoko, erabakiak hartzeko horizontaltasuneko, autoformakuntzako eta —bai ekoizleak, bai kontsumitzaileak— lurraldean integratzeko eredu bat da. Gainera, familia nekazarien gizarte antolaketa horrek haien arteko lankidetzaren, elkartasunaren, berdintasunaren, askatasunaren, autoantolaketa eta demokratizazioaren ere sustatzen ditu.

Beraz, etorkizuneko apustua da ekoizpen jardueran lurraldean ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegiaren bidez bideratzea. Izan ere, lankidetzaren eta sareak eratzearen bidez egiten da; sare horiek elkarrekin konektatzen eta berrelikatzen dituen sare orokor baten nodo gisa funtzionatzen dute, eta ekoizpen ekonomiara, ugalketa ekonomiara eta zaintzetara hedatzen dira.

Sakontzen jarraitzeko proposamenak

Hala, bada, eta Arabako Lautadan dagoeneko aurreratuta dagoen lan guztia ikusita, uste dugu lan elkartuko kooperatibak (nodoak deitu ditugunak) ezartzea sustatuko duen eredu baten alde egin daitekeela, proiektuen euskarri dinamikoa izango den ekonomia bat sortzeko, zonaldean dauden mikroproiektuak garatuz (baratzezaintza, frutagintza, abeltzaintza, basoen kudeaketa), bultzada handia izango bailitzateke eta onura ugari ekarriko bailituzke zonaldean.

ONDORIOAK

Baliabide eskasiak markatutako etorkizuneko agertokietara egokitzeko behar diren estrategien barruan, funtsezkoa izan beharko luke lurraldearen trantsizio agroekologikoa bultzatzeak. Lurraldearen kudeaketa agroekologikoa eredu bat da, aukera ematen duena gure ingurunea zaintzeko eta dinamizatzeko, bioeskualde jakin bateko baliabide erabilgarrietara egokitutako jarduera ekonomiko baten bidez. Oinarri ditu kudeaketa komunitarioko eredu tradizionalak, agroekologiako, permakulturako, nekazaritza eta abeltzaintza birsortzaileko eta sistemen dinamikako tresnekin eguneratuak. Eta lurraldea berroneratzea ahalbidetzen du, jasangarritasuneko, justizia sozialeko eta ekonomia sozial eta solidarioko irizpideekin.

Agroekologiaren bidez lurraldea eraldatzea, horrenbestez, erabilera agroekologikoetarako trantsizioa ahalbidetzean datza, lurzorua osasuna, ekosistemaren funtzioak eta lurraldean bizi diren pertsonak leheneratzea helburu duten jardunbide berritzaileen bidez, klima aldaketako testuinguru batean. Trantsizio horrek ingurumeneko eta klimako aztarna murriztuko du; eta elikadura sistema erresiliente, jasangarri eta osasungarri bat indartuko du, lurraldea artikulatzen lagunduko duena.

Arabako Lautadan aurrerapausoak ematen ari dira trantsizio agroekologikorantz. Argi eta garbi, kuadrillan egindako lana oso baliotsua da. Ikusi besterik ez dago, bildu ditugun ekimenen ugaritasuna. Ekimen horiek substratu emankorra dira, eta horren gainean lan egiten eta sakontzen jarraitu behar da, ikuspegi agroekologiko batetik. Asmoa da **ekimenak konektatzeko** aukerak ikustea eta, baterako estrategia baten parte izatearen logika batetik, lurraldea agroekologiatik eraldatzeko proiektu komun bat abian jartzea.

Figura erretoriko bat erabiliz, esan genezake kuadrillan garatzen ari den ekimen bakoitza puzzle pieza bat dela, eta kartografiaren bidez taula bat jarri nahi izan dugula, pieza horiek guztiak ahokatzeko eta zentzu integrala emateko. Hala, bada, dauden ekimenei ikuspegi zabala eta konektatua aplikatu nahi izan diegu, eta informazio horrekin osasun ona duten arloak zein diren eta indargarria edo bultzada beharko luketenak zein diren identifikatu ahal izan dugu.

Begirada agroekologikoa bultzatzeko zeregin horretan, **eragile** ugarik egin dezakete ekarpena beren eragin eremutik: **administrazio publikoek**, araudiak malgutzearen bidez lurraldean sortutako ekimenen garapena erraztuz eta lagunduz, espazio publikoak eskura jarritz, erosketa publiko arduratsuaren moduko tresnen bitartez tokiko kontsumoa sustatuz, eta zikloak ixtea sustatuz; **ekoizleek eta ekimen-bultzatzaileek**, beren proiektu indibidualetarako, baina baita kolektibitateko ere, onuragarriak diren aldaketak eragiteko behar adinako masa soziala egituratuz eta sortuz; eta, azkenik, **kontsumitzaileek**, kontsumo kontziente, arduratsu eta eraldatzaile batetik, aldaketarako palanka baitira.

Eragile horiek guztiek esku har dezakete eta eragina izan dezakete dokumentu honetan ikusi ditugun trantsizio agroekologikorako beharrezko urratsetan. Agente askok gauzak beste modu batera egitearen aldeko apustu argia egiten dute, eta jada lanari ekin diote:

1. Esparrua eta baldintza lagungarriak

Lautadan hainbat jarduera garatzen ari dira ildo horretan, hala nola ekimen agroekologikoak dinamizatzea edo ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko loturak sustatzea. Lan hori guztia indartu egin liteke, gainera, zenbait jardunbideekin, hala nola erosketa publiko arduratsuekin. Izan ere, udal jantokiak edo cateringak kontratatzeke baldintza agirietan irizpide agroekologikoak sartzea, adibidez, pizgarri handia izango litzateke sektore agroekologikorako, erosketa publikoan hartzen diren erabakiek eragin handia baitute ekoizpen moduetan eta enpresa kudeaketan.

Beste alde batetik, komeni litzateke parte hartzeko organo formalak ezartzea, eragile guztien beharrak eta interesak jasotzeko eta gizartearen eta ingurumenaren aldetik bidezkoak diren nekazaritzako elikagaien estrategiak eta politikak lantzeko.

Azkenik, nekazaritza lurra babestea ere garrantzitsua da, ekosistemen babesa eta elikagaien segurtasuna bermatzearen.

2. Ekoizpena

Ekoizpenaren arloan, kuadrillak baditu esperientziak; batez ere, lurra eskuratzea erraztera bideratu dira. Ildo horretan urratsak egiten jarraitzeko, onuragarria litzateke proiektu bat duten eta trantsizioa egin nahi duten pertsonen eskura —eta hasi nahi dutenen eskura ere— formakuntza eta aholkularitza jartzea. Hartara, ekoizpen agroekologikoaren inguruko uste faltsuak eraisten lagunduko litzateke, askok uste baitute ekoizpen eredu hori ekonomikoki bideraezina dela.

Formakuntza emateaz gainera, ingurumen irizpideak dituen ekoizpen eredu baten alde egin nahi duten pertsonen lagundu beharko litzaieke. Laguntza hori gauzatzeko hainbat bide egon litezke: pizgarri eta onura fiskalak, jardunbide jasangarriak dituzten ustategientzako konpentsazioak, jardunbide horiek sustatzen dituzten enpresak sortzeko laguntzak, eta abar.

Aurreko bi elementuekin, berebat, nekazaritzan eta abeltzaintzan jardunbide berritzaileak sartzea aldeztuko litzateke: lurzorua eta nekazaritza ekosistemak berroneratzen, berotegi efektuko gasen emisioak murrizten eta tokiko barrietateak berreskuratzen eta kontserbatzen lagunduko luketen jardunbideak. Era berean, jardunbide berritzaileak sartu beharko lirateke produkzio sektorea indartzera bideratutako estrategietan, ekonomia sozial eta solidariotik, baterako merkaturatze planen bidez, sektorean sinergiak sortuz eta ikuspegi feminista txertatuz.

Azkenik, oso interesgarria litzateke lurra eskuratzea erraztea, ekoizpen agroekologikorako lur banku bat sortuz.

3. Eraldaketa

Lautadan elikagaien eta artisau produktuen eraldaketa txikirako hainbat azpiegitura garatu dira eta garatzen ari dira, hala nola lekaleak sailkatzeko eta garbitzeko instalazio bat, hegaztien eta untxien hiltegi bat, eta olio estrusioko enpresa bat, besteak beste. Gai horretan aurrera egiteko proposamen nagusia izango litzateke lurraldeko ekoizleei ezinbesteko zerbitzua ematen dieten horrelako azpiegiturak bultzatzen eta babesten jarraitzea; eta, horrekin batera, administrazio publikoek ahalegina egitea, elikagaien eraldaketa txikiaren errealitateari eta hiri antolamenduko plan orokorreari erantzun dieten osasun araudiak egokitzeko eta malgutzeko, horrelako azpiegiturak instalatzea errazte aldera.

4. Banaketa

Ekoizleek aurre egin beharreko erronka nagusietako bat izaten da tokiko produktuen eskariari erantzuteko banaketa azpiegitura egokirik ez izatea; eta halaxe gertatzen da Lautadan ere. Aukera bat litzateke food hub bat sortzea, hau da, metaketa eta banaketa nodoen arteko konexio sistema bat, logistikaren koordinazioa erraztuko lukeena. Sistema horiek, gainera, landa mundua eta hiri mundua elkarrengana hurbiltzen dituzte, eta, beraz, ekoizpena kontsumoaren arabera planifikatzea ahalbidetzen dute.

5. Merkaturatzea

Kuadrillan egiten diren azokak eta merkatuak dira Lautadan produktu agroekologikoak merkaturatzea bultzatzen duen tresna nagusia. Horren osagarri, zuzeneko salmentaren eta merkaturatze kanal laburren aldeko araudia susta liteke, bai eta kooperatibekin batera plangintza bat garatzea ere, kudeaketa errazten eta baliabideen optimizatzen baititu. Merkaturatzea indartzeko beste modu bat litzateke tokiko marka bat sortzea, inguruko produktuak bistaratzeko eta baliosteko.

6. Kontsumoa

Kuadrillan produktu agroekologikoen kontsumoa bultzatzeko ekintza asko egiten dira, hala nola sustapen kanpainak, dastaketa jardunaldiak eta sukaldaritza lantegiak. Badago ekoizleen mapa bat ere, eta deskontu bonuak bultzatu dira tokiko saltokietan erosteko, besteak beste.

Dagoeneko egiten dena indartzeko jarduketa posible batzuk: produktu agroekologikoak dituzten establezimenduak bistaratzeko, esate baterako mapa interaktibo bidez, saltokietan zehar egindako ibilbideen bidez, edo kontsumo taldeak sortuz eta kooperatiben arteko sareak sortuz.

7. Birziklapena eta intsumoak

Komunitateko konpostajea —eta etxekoa ere— nahiko hedatuta dago kuadrillan. Beraz, zikloen itxiera hobetzeko hurrengo urratsetan bioongarrien autoekoizpena sar liteke. Bioongarri horiek, oso eraginkorrak izateaz gain, kostu txikiagoa dute eta eskura dauden hurbileko osagaiekin egiten dira.

8. Ekonomia sozial eta solidarioa

Ekonomia sozial eta solidarioaren ikuspegiak tresna bat eskaintzen digu jarduketa horiek guztiak ikuspegi integral batetik egituratzeko. Lan elkartuko kooperatibak edo lurralde osoan banatutako nodoak ezartzea bultzatuko duen eredu baten bidez estrategia bat garatzea ahalbidetuko luke. Sistema horretan, eredu agroekologiko batera igarotzen diren ekoizleek elkarrekin eta sektorean sartzeko interesa duten beste pertsona batzuekin, langabeekin, gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan daudenekin eta abarrekin lan egin dezakete.

Azken batean, kartografia sozial honek erakusten du Arabako Lautadak oinarri ona duela lurraldearen eskalan agroekologia garatu, bultzatu eta bideratzeko. Gaur egun eta etorkizunean aurre egin behar diegun askotariko krisi egoerak kontuan hartuta (klima, energia...), lagungarria izan daiteke ikuspegi berri bat bilatzea eta lurralde eremuan esku hartuko duen ikuspegi zabalago batetik egitea. Esan bezala, Arabako Lautadako kuadrillan ez litzateke hutsetik hasi beharko, ekimen baliotsu asko martxan baitaude dagoeneko. Ondorioz, esperientzia horiei bultzada bat ematea eta sor daitezkeen berriak bultzatzea izan liteke. Premiazkoa da nekazaritzako elikagaien katean parte hartzen duten eragile guztiak lurraldearen begirada integral batetik abiatzea, ekimenen eta eragileen arteko loturan lan egitea, eta, modu kolektiboan, lurraldera aplikatutako trantsizio agroekologikoko estrategia bat diseinatzea, orainaldiko eta etorkizuneko apustutzat.